

ttüpi-ttapa

1995eko urriak 5 • 167. zenbakia

Erreportaia

Izargain: «Pertsona
ulertzeko bere ingurua
kontuan hartu behar da»



NAHI IZANEZ GERO
BADAGO ZER IKASI

ZURETZAT ERRAZAGO IZATEKO, PEDRO GARMENDIAN IAT-ITVa HASIERATIK AKABERA BITARTE MOLDATUKO DIZUGU.

■ IAT-ITVaren **AURRE DIAGNOSIA** eginen dizugu estazio ofizialean erabiltzen dituzten makina berdinekin.

■ IAT-ITVa pasatu ahal izateko zerbait konpondu behar dela ikusi badugu, **AURREKONTUA DOHAINIK** eginen dizugu.

■ Aldatu behar diren pieza guzietan **%25eko DESKONTUA** eskaintzen dizugu.

Gu arduratuko gara:

- Zure etxetik autoa biltzeaz
- Tasak ordaintzeaz
- IAT-ITV ofiziala pasatzeaz
- Autoa berriro etxera bueltatzeaz

**ETA NAHI BADUZU IAT-ITV OFIZIALA
EGUN BATEZ PASATUKO DIZUGU**

PEDRO GARMENDIA, S.A.

Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 **ELIZONDO**

TALLERES SANTESTEBAN

Leitzako Errep., 1. km.a - Tfnoa 45 02 82 **DONEZTEBE**

SEMPER HNOS., S.L.

Irun-Iruñea Errep. - Tfnoa. 63 06 21 - **BERA**



RENAULT

EZ GALDU MINUTU BAT ERE PEDRO GARMENDIAN GUZIAZ ARDURATUKO GARA.

**MUEBLES
AMETS**
mobleak orokorrean

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • **BERA**



Ez galdu denborarik!!



SUKALDEAK

LOGELAK

KOMEDOREAK

GAZTEENDAKOAK

**4 erakusketa
zure esku**

OFERTAK KOLTXOI eta SOMIERRETAN

DATUAK

❖ Andoni da Helduen Hezkuntza Okupazionalen koordinatzailea Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzaldea eta Baztanaldean.

❖ Joan den ikasturtean 1.150 ikasle aritu ziren ikastaro desberdinetan; 903 emakume eta 247 gizonezko.

❖ Aurtengo ikastaroen ordutegiak zehazteko bilerak eginen dira egunotan; Leitzan urriaren 9an, Elizondon 10ean, Beran 11n, Donezteben 16an eta Lesakan 17an.

Andoni ERRANDONEA:

«Urtetik urtera gehiago dira ikastaro desberdinetara apuntatzen direnak»

ZER DIFERENTZIA DAGO HELDUEN HEZKUNTZA IRAINKORRA (EPA) ETA HELDUEN HEZKUNTZA OKUPAZIONALAREN ARTEAN?

EPA bakarrik Eskola Graduaduren titulua ateratzeko da. Talderik biltzen bada hemen ere ematen ahal da, baina generalean, holako taldeak bakarrik Iruñean eta Tuteran izaten dira. Helduen Hezkuntza Okupazionalan, berriz, jostura, informatika, eskulangintza eta gisa horretako ikastaroak sartzen dira.

HEZKUNTZA OKUPAZIONALEAN ZENBAIT ALDAKETA IZANEN DIRA AIPATU DA AZKENALDIOTAN...

Bai, halaxe da. Hasiara batean aldaketak aurtun egiteko asmoa zuten, baina momentuz ez da horrela izan.

ETA ZERTAN ALDATUKO ZEN?

Alde batetik Hezkuntza Departamentutik berari dagozkion ikastaroak kontrolatuko dira, gehien batean ikastaro teknikoak. Hauen helburua lanean ari direnei formakuntza eskaintzea eta lanean ari ez direnei lan munduan sartzeko prestatzea litzateke. Eta



bertze aldetik, ikuspegi sozialagoa duten ikastaroak izanen genituen; jostura, eskulangintza eta horrelakoak. Azken hauetaz Ongizate Departamentutik Emakumearen Institutua arduratuko litzateke. Aldaketa guzi hauekin eskola eta lan mundua estuago erla-

zionatzea bilatzen da. Gaur egun ez da horrela gertatzen, baina helburua hori da, erlazioa indartzea. Eta bertalde, gure ustez arrazportantea da jostura, eskulangintza eta holako ikastaroak mantentzea; ez dira Hezkuntza Okupazionalaren helburuak beteko, baina bai bertze batzuk.

IKASTARO GUZIAK BATERA HARTUTA, ZEIN DIRA LEHENTASUNA DUTENAK?

Lehenik ikastaro teknikoak, gero hiz-

kuntzak eta ondotik etxeko lan eta eskulangintzarekin zerikusia dutenak.

ETA ZEIN DIRA INGURU HONETAN GEHIEN ESKATZEN DIRENAK?

Informatika, jostura eta eskulangintza, orden horretan.

IKASLE KOPURUAK GOMI EGIN DU?

Aldaketak izaten bada ere, urtetik urtera ikasle gehiago dira. Elizondo, Bera, Leiza, Lesaka eta Doneztebe dira ikasle gehien biltzen dituztenak.

» «Aldaketa guzi hauekin eskola eta lan mundua estuago erlazionatzea bilatzen da. Gaur egun ez da horrela gertatzen baina helburua horixe da, erlazioa indartzea.»

IZARGAIN: PERTSONA ULERTZEKO, BERE INGURUA KONTUAN HARTU BEHAR DA

Azkeneko sei urteotan Aresoko Erasonea etxean kokatua du bere egoitza Izargain taldeak. Hemezortzi lagunez osatutako lan talde honetan psikologoak, gizarte laguntzaileak, maisu-maistrak eta erizainak daude, hau da, osasun arloan lan egiten duten profesionalak dira. Nafarroan eta Gipuzkoan urteak daramazkitez lanean arlo kliniko eta komunitarioan. Beraien ihardueraren berri jakiteko Erasoneara hurbildu gara eta Teresa Velasco eta Luis Marco izan ditugu solaskide.

TESTUA :
AITOR AROZENA
ARGAZKIAK:
JOXEMANUEL IRIGOIEN



harremanean eta elkar ezagutzen oinarritzen du bere lana 'Izargain' adimen osasunerako eskuharmen eta ikerketa taldeak.

Horretarako, herrietako talde sozialetan harremanatzen saiatzen dira—hirugarren adineko jendea, eskolako guraso taldeak, emakume taldeak, gazte taldeak...— eta beraiekin batera intereseko gauzak prestatzen dituzte. «Ez dugu herrian dauden talde horien lekua hartu nahi, baizik eta talde horiekin batera lan egin, gure esperientzia eta errekurtsioetaz baliatuz» erraten du Teresa Velasco, Izargain taldeko lankideetako batek.

«Bainan talde horien esperientzia ere aprobetxatu behar da. Adibidez, guraso edo irakasleek asko dakite praktika aldetik eta guk teoria, azken finean hitza, jartzen

dugu, beraiek egiten dutena ulertzeko». Talde horiekin kontaktatzen dute, gizarte laguntzaileak, guraso elkarteak... ezagutu eta beraiek egin dezaketena aurkezten dute

Izargainekoek. «Ideia, jende edo talde horien aktibitatea bultzatu edo laguntzea da. —gaineratzen du Luis Marco, beste solaskideak— Azken finean, herri batean gauzak



«IZARGAIN»
TALDEAREN IDEIA,
HERRIKO TALDE
SOZIALEN AKTIBITATEA
BULTZATU EDO
LAGUNTZEA DA, LUIS
MARCO ETA TERESA
VELASCOREN
ESANETAN


mugitzen dlituztenak, berta-ko taldeak dira».

OSASUNTSU BIZITZKO GIZA-INGURUA BEHARREZKOA DUGU

Izargain taldearen ustez, gizakiak osasuntsu bizi ahal izateko behar beharrezkoa du bere giza-ingurua: herria, familia, lagunak, lankideak... hau da harremanak. «Osasuna ez da ezer ez gertatzea (zantalzak, poza, tristura...) ze-ozer gertatzen denean aktibo izatea baizik: gure baliabideak bilatzea, gure mugak ezagutzea, gure burua ulertzen saiatzea, gure bizitzaz arduratzea gai izatea, gure minak sentitzeko eta lantzeko posibilitatea izatea, gure pozak gozatzea eta konpartitzea...». Gure buruarekin eta gure inguruarekin ditugun arazo horiek kaleratzeko ez omen da ohitura haundirik herriotan. Teresak dioenez, «hirietan zerbait arrunta bezala hartzen da sikologora joatea. Herrietan berriz, oraindik ez da laguntza eskatzen, 'sikologora noa, orduan eroanaiz' pentsatzen dujendeak». «Momentu batean gaizki egotea ez da lotsatzeko edo ezkutatze zerbait» gaineratu du Luisek.

HELBURUA, KRISIALDIRIK JASO BEHAR EZ IZATEA

Erasonean krisialdian da goen jendea ere jasotzeko intentzioa dute, nahiz eta zerbitzu hori martxan ez izan oraindik. «Gizartetik ateratzen gabe eta sikiatrikoak uzten duen 'markarik' gabe, pertsona bat jaso eta famili bat laguntzeko asmoa dugu». Horregatik aukeratu zuten Areso eta Erasonea etxearen lau solairuak egoki moldatu: «Herri txikia, lasaia eta euskalduna nahi genuen eta Donostia eta Iruñea artean erdibidean badago, askoz hobe». Halere, beraien helburu nagusia krisialdirik jaso behar ez izatea litzateke. «Horretarako, hain zuzen ere, garatzen ditugun aipaturiko beste lan mota guztiak, holako egoera latzetara iritsi behar ez izateko». ■



Gizartea

EEBBetatik etorritako
kolonizazioa

«Gure gizarteak kolonizazio handia du, EEBBetatik etorria» dio Teresa Velascok. «Indar handiarekin sartzen ari da hango kultura, baloreak eta harremanak bizitzeko modua, oso jerarkizatua. Jendeak lehenengo postua lortu nahi du gizartean, besteen gainetik pasatu eta piramidearen goiko puntara ailegatu, izugarritzko konpetibitatea dago. Ez da norberaren ongizata bakarrik begiratzen, konparazioak egiten dira eta bestea baino gehiago izan nahi da... Bestearen kotxea nerea baino hobe bada, orduan ni gaizki. Eta bestea sufritzen badago, orduan ni ongi».

«Komunikabideek, batez ere telebistak, sekulako eragina izaten dute honetan —gaineratu du Luis Marcok— eta txarre-na da gure harremanetan ere sartzen ari direla balore hauek».

Krisialdia

Pertsonaren ingurukoak
garrantzitsuak dira

Adimen osasuneko arazoa, normalean arazo indibiduala bezala ikusten da. Izargainekoen ustez berriz, «persona sistema bat da, beraz, familia, gizarte eta bere inguru guztia hartu behar dugu. Noski, badago pertsonaren identitate bat, baina identitate sozial batean sartuta dago. Ezin dugu pertsona ulertu, gizartea kontuan hartu gabe». Luis Marcoren ustez, «krisi egoera batean, ez da bakarrik pertsona oso gaizki dagoela, zenbaitetan bere familiak, lagunak edo inguruak ezin izaten dute egoera hori jasan. Momen-

tu horietan sikiatrarengana eramaten da eta batzutan kaltegarria izaten ahal da, pertsona horrentzat markatua gelditzen zaion zigilua bezala baita. Gure proiektuan, berriz, gizartetik ateratzen gabe, pertsona hori jaso eta bera eta bere familia laguntzeko helburua daukagu».

Hirugarren Adina

«Eta orain, zer egin behar dugu?»

«Hirugarren adineko jendeak beti problematika berdintsua izaten du, beraien beldurra beti baztertuta gelditzearena izaten da» Luis Marcoren erranetan. «Jubilazioa ailegatzen da edo adin batera iristen dira eta beraien buruari galdezka hasten dira:

Eta orain zer gertatzen da? Ez dugu ezertarako balio edo zer? Bazter batean geratu behar gara?»

Luisen ustez, problematika honetan bi jarrera ditugu, «beraia eta bestalde, gizartearena. Gizartean oso hedatua dago zaharrak etxean edo erresidentzian kontu behar direla uste izatea. Honela, nahiz eta adineko jendeak badituen eskaintzeko eta emateko gauza ugari, gizartearen aldetik ez da horretarako biderik irekitzen».



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.100 ALE

ARGITARATZAILEA: TTPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-
en. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
ozena, Joxemanuel Irigoin.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
txea, Juainas Paul, Kristina
oan, Bittori Telletxea.
Erriemaileak: Joseba Azpiroz,
teban Arozena, Juana Mari
izar, Ainhoa Mutuberria, Iban
asi, Txema Aldabe, Pello
xegia, Txema Urroz, Patxi
xandorena, Daniel Martirena,
abel Maia, Josune Etxebeste,
ablo Mendiburu, Joseba
arabide, Alizia Olaizola, Margari
xenike, Koro Irazoki, Mixel
erendiaín, Jacqueline, Elixabet
ria, Garbiñe Maiz, Oskar
operena, Alberto Sansiñena,
ello Apezetxea, Aitor Arozena,
istina Boan. **Kolaboratzaileak:**
HNE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel
zunartea, Joxe Javier Etxe-
rria, Arantxa Zabala...

primategia: Gertu (Oñati).
tipi-ttapa ez du bere gain har-
en derrigorrez, aldizkarian adie-
zitako erranen eta eritzien eran-
ukizunik.

akunde Laguntzaileak: Bera,
itza, Goizueta, Areso, Baztan,
dzubi, Zugarramurdi eta
arako udalak, Bortzirietako
uskara Mankomunitatea,
alerrekako Zerbitzu Mankomu-
atea...

GAURKOTASUNEN GAIA

Helduen Hezkuntza Okupazionala eta Formakuntza Profesionala

Edukiak ikasleen maila orokorrari egokitu behar dira



Itziar Mtez. de ICAYA
Irakaslea. Elizondo

Gaurko egunean, lan merkatuak eta bizi dugun 'Informazioarean Aro' honen, informatikaren ezagupena behartzen dute. EPAk maila honetan antolatzen dituen ikastaroetan izena ematen duen jendeak guttieneko ezagupenak lortzen ditu, eremu honetan defendatzeko baliagarriak zaizkionak. Kurtsoetan adin guztietako jendeak ematen du izena, eskola adinean daudenetik hasi eta helduak bitarte. Batzuen helburua furri-furian dagoen zerbait berria ezagutzea da eta berteena, gai honi buruz duten ezagupena berriro eta zabaltzea. Guztientzat, informatikak pertsonalki nahiz lan mundurako eskaintzen dituen aukerak ezagutzea suposatzen du. Kurtso hauetako arazo bat ikastaroko edukiak eta maila orokorrari parekatzea izaten da, honen hasierako egitarauan aldatetako suposatzen baititu. Baliabideak eta instalazioak ere egokiak dira. Orokorrean, izena ematen dutenen espektatibak betetzen direla uste dut, aunitzek errepikatzen baitute programa berriak bilatuz.

Ikasitakoari probetxu ona bilatu diot



Carmen GARMENDIA
Etxekoandrea. Areso

Ikastaroak direla eta, azken hiru urte hauetan jostura ikasten ibilia naiz ni, eta lehenagotik ere, beste hiru urtez bederen, sukaldaritza ikasten ibili nintzen Leitza. Egia esan, oso gustora nago ikastaro hoietan ikasitakoarekin. Sukaldaritza ikastarora gustorajoa nintzen, baina jostura ikastaroari probetxu gehiago atera diot beharbada. Korteak ematen eta josten, dena ikasi dugu. Denbora guzi honetan asko josi dugu, eta gaur egun, gure arropa guk geronek josten dugu. Horregatik, oso probetxugarria izan da niretzat bederen. Dena dela, lehenengo urte honetan bakarrik hamabi emakume elkartu ginen. Aurreko urte hoietan oraindik emakume gehiago bildu izandu gara. Adinari begiratuz, denetik izaten da holako talde batean, neskak eta emakumeak. Joan den urtean ni nintzen zaharrena. Aurten ez omen dute oraindik paperik jarri eta ez dakit zer gertatuko den.

Makina berriak paratu zizkigutenez, ikasi beharra nuen




Kontxi ARACUES
CSlko langilea. Lesoka

Gure kasuan, Lesakako fabrika haundia denez, departamendu bakoitzeko nagusiak Formakuntza Departamenduari eskatu egiten dio ea bere jendearentzako ze aukera dagoen, beti ere, dituzten beharrak ikusita (makina berriak, edo lan berriak...). Guzi horren arabera jartzen dira ikastaro hauek. Alderantziz ere izaten ahal da, hau da, Formakuntza Departamendutik eskaintzea nagusi bakoitzari dauden aukerak. Bi modutara. Nire kasuan, errate baterako, makina berriak paratu behar zizkigutenez, ikasi beharra nuen, eta 'testu tratamendua' izeneko ikastaroa egin nuen hilabete batez egunero bi orduz, lan orduekin beti ere. Hasieran nahiko zaila gertatu zitzaidan ematen hasi ginen gauzetaz ideia gehiago zuten pertsonak baitzeuden gure artean. Baina tira, azkenean nahiko ongi. Zentzu horretan, espektatibak bete egin ziren nire kasuan bederen.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du



BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

121 errepele nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mabeak
- Estiloko mabeak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



Intsumisio Eguna Bermeon

Estitxu AROZENA

Bortzirietako Bertso Eskola
Doinua: Egañaren berria

Intsumisio Eguna gertu dagonez nahi dut hitzegin: Bermeon dugu konpromezua intsumisioarekin.

Erantzun ona izan du beti jendearen aldetik fin izan da hainbat ahalegin gehienon laguntzarekin, baina dena dago berdin aurrerapausu erabakior bat beharko dugu egin irabazia dagon ustea ustela gerta ez dadin.

Nahiz ta kritikaz josia egon militarren azala filosofia menperatzaile aunitzentzat ideala, pentsatzen dute on prozesuan – Aro hau da naturala! Gehiengoaren itzala isladatzea normala aldatzea nolabala behin eta berriz behin betirako Oskarrek zion bezala nahiz argi egon, nahi ez duenak argi ikusi dezala.

Mikel Altzuart atxilotua

Mikel Altzuart, arizkunder intsumitua Guardiek irailaren 18an Iruritan atxilotu eta Elizondoko kuarterat eraman zuten. Egun, bertze intsumitu presoekin batera Iruñeko gartzelan dago. Zugarramurdiko Alfredo Jurio intsumituak, guardia zibila etxera bere bila joan ondotik bere burua Iruñeko epaitegian aurkeztu zuen. Azkeneko atxiloteta hauekin 9 izanen dira kartzele-ratutako Baztan-Bidasoa eta Zugarramurdiko gazteak. Aipatzekoa da ere Txema Ballarena baztandarren kasoa. Uztaila hasieran, hirugarren graduaz zegoela guardia zibilek Doneztebeko bestetan ongi egurto ondoren, tratu txarrak salatu zituen eta 2. gradura pasarazi zuten. Tirokatuak, egurtuak eta zigortuak. Aski da! Halere, ez dute intsumisioa erreprosioren bidez geldiaraziko. Euskal Herriak aspaldian gizarte desmilitarizatuaren aldeko apostua egina du. Bertzerik gabe, eta gure kideak agurtuz batera intsumitu guzien askatzea esigitzen dugu. Intsumisioa askatasuna da!

ZUGARRAMURDI, BAZTAN-
BIDASOAKO TALDE ANTIMILITARISTA



Sorginak izan ba ote zeuden? Akelarreak?

Hilak eta zigortuak bai, du-darik gabe. Zergaitik? Zer izan zen XVI. eta XVII. mendeetan, gure eremu honetan, gertatu zena? Zugarramurdin eta Erratzun, Beran eta Aurtitzen, Donezteben eta Arraiozen? 'Kultur Zurkaitza' elkarteak ikasi eta azaldu nahi du. Lantaldeak prestatzen ari da eta gogoia duten guztion parte harmena eskertuko luke: lana burutzeko eta jendearen antzinean hitzaldiak emateko. Hori guztia gauzatzeko interesa dutenetarikoa bat bazara, azaldu urriaren 9an, astelehena, atsaldoko 7,30etan Doneztebeko Euskaltegian.

JUAINAS PAUL

KULTUR ZURKAITZA ELKARTEA



12 urteko gezurra

Garcia Goena, GAL, Galindo, Intxaurren, Danborrenea, Roldan, Lasa, Urralburu, Amedo, Barrionuevo, Zabala, Bueren, Zabaltza, CESID, Navajas Informea, Garzon, Jauregi, Segundo Marey, Sancristobal... e.a. Izen hauek eta gehiago eguneroko albistegietan dantzan dabilzanetik, orain arte inoiz zalantzan jarri ezin zena, estatuburu poteresuen garbitasuna alegia,

zalantzan dago, dirudienez. Afera hauetan mugitzen diren ustezko delinkuenteak eta euren delituak berez duten larritasunatik aparte, zertzelada bi dagozi egungo egoera politikoa gehiagor zerritzen dutenak:

1. Poteretsuek poterean segitzeko erakusten duten atxikimendua. Justiziari trabak jartzeko Potereaz baliatzen dira. Poterea herriaren zerbitzurako izan beharrean, Poterean irautea dute helburu.

2. Gaur auzitegieta dau den delituak orain dela 10-12 urte gertatu izanak denbora luze honetan esku zikineko gobernu batek gobernatuak bizitu garelara argi erakusten du. PSOEren demokrazi honetan botoemaile puska engainaturik bizi izan da. Sistema demokratikoa zaintzen ari zirelakoan, estatu terroristak sustengatzen aritu dira. Botoa ematen ez dugun biztanlegoaren %45ari engainaturik botoa ematen dutenen kopurua gehitzen badiot...; nik pertsonalki ez dut 'Sistema Demokratiko' honetan gehiegi sinesten. Ez Herriaren nahia adierazi behar duen aldetik, ezta eskubideen zaindaria izan behar duen aldetik ere.

OSKAR GOÑI

ESTATU ESPAINOLEAN PRESO DAUDEN 254 INTSUMITUEN ARTEAN BAT



ZALDO OSTATUA

LESACA



ANSONEA
JATETXEA


Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • **BERA**

ALZURI

☛ **Sukalde**
tresneria eta
opariak
☛ **Landare eta**
loreak

Tel.: 63 03 70 • **BERA**



Nafarkaria 95-IX-20

«Espainiako taldeko mekanikoak Tourrerako bederatziz bizikleta egiteko eskatu zidan. Lehen aldi hartan, koadroak kanpotik ekarri zizkidaten eta nik gainerako osagaiak prestatu. Langarika bigarren geratu zen eta Bahamontesek mendiko sailkapena irabazi

zuen, biak nire bizikletekin...»

Juan TELLETXEA
Berako txirrindulari ohia
Egunkaria 95-IX-20

«Olinpiadetan egotea lor dezakedan ametsa da neretzako»

Juan Carlos GARRO
Berako txirrindularia
Egunkaria 95-IX-23

◆ **Bada gazteendako lanik?**

◆ Zona huntan franko aise harpatzen da.

◆ **Opor egunik hartu duzu?**

◆ Ez.

◆ **Etxeko lanetan laguntzen duzu?**

◆ Pixket saiatzen naiz.

◆ **Nola animatu zinen negozioa jartzera?**

◆ Proposamen interesgarria egin ziguten eta tira...

◆ **Traktore aunitz saltzen dira?**

◆ Hasi berriak gara eta ongi saldu ditugu.

◆ **Berriak saldu edo zaharrak konpondu?**

◆ Berriak saltzea garbiagoa da, baina denetarik egin behar izaten dugu.

◆ **Negoio ona da?**

◆ Ezin jakin, hasiera ona egin dugu.

◆ **Konpetentzia haundia dago?**

◆ Bai, eta hori ona da. Honela gehiago saiatu behar da ongi atenditzen.

◆ **Nori emanen zenioke belarriondoko bat?**

◆ Nihorreri.

◆ **Euskara galtzen ari da gazteen artean?**

◆ Gure inguruan ez

◆ **Asteburutan zer?**

◆ Neguan afaritto bat eta Elizondorat eta udan herriko bestetarat.



Juan M.º ZALDAIN
Traktore saltzailea
Amaiturra

Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES

© 63 01 55
BERA



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • © 63 02 40

ANIMA ZAITEZ AUTOBUSEZ HOBE

UNTZIRATU INTSUMISIOAN!!

EUSKAL HERRIAREN DESMILITARIZAZIORANTZ

Intsumisio Eguna '95

Urriak 8, Denok Bermeora

KAKITZAT KOORDENAKETA ANTIMITARISTA

Bera

Kiroldegia zerbitzu berriak eskaintzen ditu

Instalazioak eskaintzeaz gain, zenbait ikastaro antolatu dira aurtengoan

KRISTINA BOAN

Toki-Ona udal kiroldegiko ikasturte berria astelehen honetan hasi da eta hainbat aukera eskaintzen ditu kirola egin nahi duenarentzat. Bertzeak bertze, mantenimendu gimnasia, adintuendako gimnasia, aerobio, karate eta muskulazio ikastaroak egingen dira. Apuntatzeko epea irailaren 18an ireki eta bukatzeko puntuan dago, beraz lehenbait-lehen polikiroldegira joan behar da.

Bertzalde, erabil-tzaileen esku kirol aunitzetarako pista (tenisa, areto futbola, saskibaloia, baloibolea—ordutegiaren arabera—...), sauna, muskulazio gimnasioa, frontoi ttikia eta dutxak izanen dira. Polikiroldegia goizeko 9etatik letara eta arratsaldeko 3etatik 10etara zabalik egonena da.



Aurten bederatzigarren edizioa beteko duen Lurraren Eguna urriaren 22an ospatuko da

Artxiboa

Formakuntza Okupazionalako ikastaroen xehetasunak erabakitzeko bilera urriaren 11n

Urriaren hondar aldera hasiko diren Hel-duen Formakuntza Okupazionalako ikastaroen ordutegiak, programazioak eta gisa horretako xehetasunak erabakitzeko, bilera egingen da urriaren 11n. Bilera guziak, halere, Berako Toki Ona Institutuan egingen dira

arratsaldeko 3,30etatik aitzinera.

Jostura ikastaroan izena emana dutenak, errate baterako, 3,30-etan bilduko dira, Pelukeria ikastarokoak 4etan, Zeramikakoak 4,30etan, Informatika ikastarora izena eman dutenak arratsaldeko 6etan, Moble

zaharren zaharberritze ikastarokoak 6,30etan, eta azkenik, gainerako guziak bilduko dira. Itxura denez, ingeles, frantses, sukaldaritza eta horrelako ikastaroetan jende gutti apuntatu dira, eta hauek, denak batera bilduko dira arratsaldeko 5etan.

ttipi-flash

◆ Lore Jokoak

literatur lehiaketan saritutako idazlanak *Maiatz* aldizkarian plazaratu dituzte. Aldizkaria eskuratu nahi izanez gero Igone liburudendan salgai dago.

◆ Sistelec

enpresak antenna bat paratzeko 100 m² utzi dizkio udalak.

◆ Mendi garbiketak

Herriko plantazioetan udan egin diren garbiketak ordaintzeko 4,9 milioi pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernua Udalari.

◆ Multak

erregulatzeko ordenantzak behin behineko onespena jaso du udalan. Urriaren 30a arteko epea dago nahi duenak alegazioak aurkezteko Herriko Etxeko idazkaritzan. 15.000 pezeta bitarteko isunak paratzen ahal dira.

◆ Ezpidobaita

elkarteko batzarra burutuko da urriaren 7an, larunbata, arratsaldeko 5etatik aitzinera.

© 631076 • BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, ☎ 63 05 98

BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 - BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

Lesaka

Andra Mari Erresidentziako batzorde berria aukeratua

Udaleko ordezkariak hautatzeko moduarekin HB eta EA ez ziren konforme agertu

AITOR AROZENA

Andra Mari erresidentziako gobernu batzorde berria osatua gelditu da. Jakina denez, lau herritarrek osatzen dute batzorde hau, hiru udalak proposatutakoak eta bertzea, elizak. Udalak, PNVko zinegotzien aldeko botuekin, Tomas Maia, Alvaro Telletxea eta Ricardo Ariztegi aukeratu zituen. HBko ordezkarien ustez, konbokatoria publikoa egin beharko litzateke eta kontrako botua eman zuten. EAren ustez, "asiloak koto itxiaren itxura ematen du" eta ez zuen boturik eman. Alkateak erran zuenez, "hiru pertsona hauek orain arte egin duten lana ezin hobeada". Elizako ordezkaria berriz, Alfonso Obeso izanen da.

Bertzalde, erresidentziako lau lanpostuetarako probetara 41 lagun aurkeztuko dira, 20 lesakarrak.



Irain dantza taldeko 40 dantzari eta musikari Bartzelonan barna ibili dira irailaren 22tik 24ra, bertako 'Esbart del Centre Moral i Instructiv de Gracia' taldeak gonbidatuta. Lehen egunean Port Aventura ikusi zuten Saloun. Larunbat eta igandean emanaldi bana eskaini zuten, Euskalerrria osoko dantzak plazaratuz. Musika, argia eta soinuak ez ziren faltatu ikuskizunaren barrenean.

Artxihoa

50 bat lagunak burutu zuten Lesakako I. Mendi Itzulia

Irailaren 24an izan zen Beti Gazte elkar-teak antolatutako Lesakako I. Mendi Itzulia. Herriko mugetatik ibili beharra zuten parte-hartzaileak, 34 kilo-

metroko ibilbidea osatuz. Luzera horrek bat baino gehiago beldurtu izanen zuen, seguru aski, eta 50 lagunek bertzerik ez zuten proban parte hartu.

Zuberoako kantuek Altzükütarrak taldearekin

Larunbat honetan, urriak 7, Zuberoako musika aditu ahal izanen da udal pilotalekuan, gaueko 11etatik aitzinera. Arrano elkar-teak, Bianako

Printzea eta Herriko Etxearen laguntzarekin antolatutako kantaldi honetan Altzükütarrak taldea arituko da eta sarrera 500 pezetakoa izanen da.

ttipi-flash

❖ **Formakuntza okupazionala**
ikastaroen xehetasunak erabakitzeko bilerak urriaren 17an egingen dira Irain eskolan, arratsaldeko 3,30etatik aitzinera. Aurten, jostura, artisautza, sukaldaritza eta informatika ikastarotarako taldeak osatu dira.

❖ **Mendi garbiketak**
Udan zehar herriko plantazioetan egin diren garbiketak ordaintzeko 11,1 milioi pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak.

❖ **Bortzirietako bertso eskolak**
ikasturte berriari hasiera eman dio. Izena eman nahi izanez gero 637891 telefonora deitu.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

ORDUTEGIA

9,30etatik 1etara eta 5etatik 8etara
Larunbatetan 9,30etatik 1etara

Albistur 51, 627660 LESAKA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

ORBELA
gimnasioa

Dagoeneko zabalik

637950 • LESAKA



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
948 - 62 75 47
LESAKA

Lagunekin
elkartzeko
toki egokia

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria, 67 - 637264

ETXALAR

Udazkenerako kultur ekitaldi ugari prestatu dira

Urriaren 8ko antzerkia lehendabizikoa

PELLO ETA ALBERTO

Urriaren 8an *Lurra doministikua* antzerkia eskeiniko digu Txirrista Taldeak, arratsaldeko 5etan. Antzerkia Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen bitartez heldu zaigu, eta Nafar Gobernuak ordaintzen du, Mozorro Berri kanpainaren barnean.

Urriaren 14an, larunbata, herriko gazteek antolatzen duten gaupasan, Tapia eta Leturiak eta Reincidentes taldeak beteko dituzte lehen orduak. Ondorengoak Basajaun musika taldeak. Urriaren 15ean, igandea, Joselu anaiak taldea izanen dugu plazan, 5,30etan hasita, udalaren eskutik. Aintzinetik herriko trikitilariak girotu-



laz errana betetzen ari da. Santakruz eguneko mezaz gain Urritzokietarrek eskeinitako hameketakoa ere ohitura bihurtzen ari da

ko digute ingurua.

Azaroaren 4ko arratsaldean, haurrentzako tailerrak izanen dira, kanpotik etorriko den talde baten gidaritzapean. Herriko Euskara Batzordeak anto-

latua, Bortzirietako Euskara Manmunitatearen laguntzaz.

Biharamonean, Lesakako Irain Dantza Taldea ikusteko aukera izanen dugu, eguerdiko 12etan. Ondotik,

bazkari eta bertso onez gozatzeko aukera, Herriko Ostatuan. Udalaren eta Altxata Elkar-tearen eskutik.

Abenduaren 3an, Baigorriko 'Iguzki Lore' koralaren kantu

kontzertua, elizan, eguerdiko 12etan Udalak eta Nafar Gobernuak ordaindua. Abenduaren 22an, Inurategi anaiak mendietako abenturak kontatuko dizkigute, diapositiba eta guzi. Euskara Batzordeak antolatua da ekitaldia, Euskara Mankomunitatearen laguntzaz.

Helduen ikastaroak

Udazkenarekin batera, haurrak eskolara biltzen diren bezala, adineko jendea ere ikastaroak egitera animatzen da. Larraburuko gimnasia taldea hasia da, eta bertzelakoak ere, eskulan, fruta arbola, sukaldaritza, etabarrekoak hasteko asmotan dira. Xehetasun gehiago emateko aukera izanen dugu.

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



ZALAIN

JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa

© 63 11 06

BERA

Boda eta banketeak ematen dira

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

LEGARRA

Legarra, 9
© 63 70 30
LESAKA

DISKOAK 500 Ptatan.

HILABETERO OFERTAK PAPERTEGI GAJETAN

- Inprenta lanak
- Enkuadernazioak
- Fotokopiak
- Fax publikoa
- Aldizkari eta egunkariak
- Liburuetan azken nobedadeak

*Larunbata eta
igande goizetan
irekia*



© 635290
ETXALAR

**HERRIKO
OSTATUA**

Jatetxea

*Lagun artean
gora-gora egoteko
leku egokia*

Igantzi


Aurtengoan ere adio erran diegu Sanmigel beste

Bertzalde, Ruben Fonscek irabazi zuen Igantziko V. Mendi Bizikleta Ibilaldia



Irailaren 26an Zahar Etxera hurbildu ziren Nafarroako Aurrezki Kutxa-koak, 750.000 pezetako dirulaguntza ematera. Martxan jarri berri den elkartearen euren ere bere aportazioa egin nahi izan dute eta ez nolana hiko gainera.

Ruben Fonseca irundarrak irabazi zuen irailaren 17an korritutako Igantziko 5. mendi bizikleta ibilaldia. 115 txirrindularik parte hartu zuten. Patxi Irazoki izan zen lehendabiziko herritarra eta zerbait gehiago egitea espero bazuen ere, seigarren postuarekin konformatu behar izan zuen hiru erorketa zirela medio. Ondotik, bertaratutako guzietan hameketakoa eskaini zitzaizen eta hainbat gauza zozketatu ziren, txirrindulari tresnak, beti ere.



San Migel bezperako ekitaldirik nabarmenena eguerdian izan zen, dantza txapelketarekin. Sei bikotek hartu zuten parte eta epaileen ustez Pili eta Maitek dantzatu zuten hobekien. Goizean berriz, Patxi Irazokik irabazi zuen herriko plater tiraketa.

Oskar TXOPERENA

BOAN
TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mobleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurria eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberrituak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA

Arantza

Arantza, Udalerri Euskaldunen Mankomunidadeko kide berria da

Biztanlegoaren %80tik goiti euskalduna izateaz gain Herriko Etxeak euskaraz funtzionatu behar du horretarako

GARBIÑE ETA ELIXABET

Arantzako udala UEMA elkartearen sartu da, hau da, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean. Elkarte honetan, euskaraz funtzionatu eta biztanlegoaren %80tik goiti euskalduna duten udal-letxeak elkartzeko dira elkarlanean aritzeko. 1991ko erroldaren arabera herritarren %99,3 euskalduna da eta gainerakoa, ia euskalduna. Erabilera, berriz, %90,6koa da iazko neurketaren arabera.

Haize errota

Udalak lur komunalek 64.675 m² utziko 'Energia Hidro-electrica de Navarra (EHN)' enpresari, bertan haize errota paratzeko. Nafarroako



Arantzako udala UEMAko kide bezala aurkeztu zen Iruñean

Gobernuak lurak desafektatzeko baimena emana du.

Musika eskola

Aurtengo ikasturtean 23 ikasle matrikulatu dira Lesakako musika eskolan. Solfeoa

Arantzán bertan ematen dute eta batzuk instrumentoak ikasteko ere matrikulatu dira, batzuk herrian bertan eta bertze batzuk Lesakan ikasiko dutelarik.

Saneamendua

Herriko saneamendurako lanak hasiak dira. Obren kontratista den Saralegi udalarekin konprometitu da herritarrak urik gabe ez daitezen gelditu.

Horretarako, tuberi probisonala paratuko omen dute.

Herri kirolak

Irailaren 23an, Ekaitza elkarteak antolatutako kirol jaialdia burutu zen. Patinai eta txirrindulari ikustaldia ederki ateratu zen eta ondoren txokolatada izan zuten hurrek. Meza ondotik pilota partidua eta proba konbinatuak izan ziren. Azken honetan, talde xuriak irabazi zuen. Pilota partiduan, Miguel eta Aitor Tomas eta Jonen kontra jokatu zuten, lehendabizikoak, hau da, gazteenak nagusituz. Bukatzeko, gauean elkartearen afaria ospatu zen, giro ederrarekin jaialdi eder honerik bukaera emanez.

GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA

Eske Onak Urtemugak Eskelak



Familiakoren bat edo lagun bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapak** eskelak, urteurrenak edo eske onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.

Deitu gure telefonora:

☎ **63 11 88**

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - **LESAKA**

koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

Sunbilla

Lehenbiziko aldia da bikote bat Herriko Etxean ezkondu dela

Udazkeneko Biraren barnean, bertzalde, Ardanbera fanfarrearen emanaldia izanen da irailaren 14an

IXABEL ETA JOSUNE

Irailaren 17an, Herriko Etxean egin den lehendabiziko ezkontza ospatu zen. Akaso lehendabizikoa zelako edo, arras ospetsua eta berezia izan da, bai jendearentzat, bai zinegotzientzat, baina batez ere alkatearentzat, bera izan baitzen Magdalena Salaberria sunbildarrak eta Leongo Laurentino Oterok osatzen duten bikotea ezkondu zuena. Erran beharrik ez da Inazio Mariezkurrenaren ezkontzen duen lehena bikotea dela.

Idazkaritza okasiorako apaindua zegoen, lore ederrekin hornitua. Alkateari buruz, erran behar da urduri xamar zegoela, baina



Herriko Etxean alkatearen bitartez esposatzen den lehena bikotea izateko arras ongi atera zen Magdalena eta Laurentinoren ezkontza.

halere dena ongi atera zitzaion. Gisa honetako lehena ezkontzaren ondotik, afaria izan zuten eta goizaldera arte besta ederra egin zuten gonbidatuek Elortxuri jatetxean.

Ardanbera Fanfarrearen emanaldia urriaren 14an

Urriaren 14an, arratsaldeko 8,30etan Ardanbera fanfarrea herriko karriketan barna ibiliko da bere saioa eskainiz, Udazkeneko

Biraren barnean. Talde hau 1985ean sortu zen eta orduz geroztik Frantzian, Bulgarian eta Afrikan ere ibiliak dira musika jotzen.

♦ **Askin eta Ermitagoia** mendi komunaletan pistak hobetzeko 1,8 milioi pezetako dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak.



SANTAMARIA Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



GAZTANDEGIA Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA



Moble berriak erakusketan



TELLETXEA MOBLEAK

Moble modelo berriak
Burdin eta zura konbinazioak

Rosa Seminario z/g • 45 02 58 • DONEZTEBE

Doneztebe

Euskalerriko aizkolarien txapela jokoan igande honetan

Kasino La Union elkartekoek, bertzalde, igande honetan ospatu dute bere eguna

TTIPI-TTAPA

Igande honetan, urriak 8, goi mailako herri kirol ikuskizuna izanen da eguerdiko 12,30etatik aitzinera Bear-Zana pilotalekuan. Ordu horretan hasitekoa da Euskalerriko aizkolaria txapelketa nagusiaren finala, aspaldiko partez Nafarroan burutuko dena. Txapelaren bila plazaratuko diren aizkolaria Donato Larretxea (Aranza), Mikel Mindegia (Ezkurra) eta Floren Nazabal (Etxarri-Aranaz) eta Arrospide, Olasagasti eta Peña-garikano gipuzkoarrak izanen dira. Egin beharreko lana, berriz, ez da nolanahikoa izanen; lau kanaerdiko, 60 ontzako lau enbor eta 72 ontzako bertze lau. Lan ikaragarria izanen dute, baina jokoan dagoen txapela ere itzal haundikoa da.

Ikuskizuna bertatik bertara ikustera jende aunitz hurbilduko da.



Hiru nafar eta hiru gipuzkoar Euskalerriko txapelaren bila

Artxiboa

Formakuntza ikastaroen bilera urriaren 16an

Urriaren hondar aldera hasiko diren Helduen Formakuntza Okupazionalen ikastaroen ordutegiak, programazioak eta gisa horretako xehetasunak erabakitzeke, bilera egingen da urriaren 16an arratsaldeko 3,30etatik aitzinera.

Jostura ikastaroan izena emana dutenak,

3,30etan bilduko dira, kurtsoen lokalean. Eskulangintza ikastarokoak leku berean dute zita 4etan. Informatika ikastarokoak arratsaldeko 6etan eskolara joan beharko dute. Jende nahikoa bildu ez duten bertze ikastarotatik izena eman dutenak 5,30etan bilduko dira eskolan.

Udazkeneko Bira Malerrekan

Aurtengoan ere zenbait ekitaldi burutzen ari dira Malerrekan, 200 eta 775 biztanle arteko herrietan. Urriaren leian, Leitzako Aurrera dantza taldekoak izan ziren Ezkurran. Urriaren 21ean Donamarian Iruña Pequeño Teatrok *Bazter utzitako panpinaren istorioa* antzestuko du frontoian gaueko 9e-

tan. Egun berean, Labaien, Kollins Clown taldeak *Bikingoak* antzestuko du arratsaldeko 6etan plazan. Urriaren 29an, eguerdiko 1etan Lesakako Irain dantza taldearen emanaldia izanen da Urrotzko plazan. Abendu hasieran Enrike Zelaia akordeolaria izanen da Ituren.

Kasino elkartaren Eguna

Bear-Zana pilotalekuan kokatua dagoen 'La Union' kasino elkartaren eguna ospatu da igande honetan, urriak 1.

Elkartaren mugimendu nagusia ehizarekin lotua dago eta denboraldiari ekiteko bazkaria eta besta ederra antolatu zuten. Gaur egun, ia hirurehun bazkide ditu elkartek.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruña-Donostia-Irungo ospitaleetatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estrukturalak eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

Malerreka

Euskararen Eguna ospatuko da Zubietan urriaren 14an

Dantza talde berriaren ikuskizuna, pilota partidua, aizkora apostua eta, erremate bezala, gaupasa izanen da

AINHOA MUTUBERRIA

Urriaren 12an jaia da, Pilarika Eguna, baina herrian ohitura den bezala, azienda eta lur eremuak dituztenek lanean segituko dute. Ikasleak lau egun segidan libre izanen dituzte eta postre bezala, 14an Euskararen Eguna denez, udalak ekitaldiak antolatu ditu arratsalde eta gaue-rako. Herriko dantza talde berriak *Dantza luzea* erakutsiko du Pilota partidua jokatu-ko da, aizkora apostua eta erremate bezala, gaupasa.

Autobusa Tuterara

Datorren igandean, urriak 15, Nafarroa Oinez ospatuko da Tuteran. Bertaratu nahi



Aizkora apostua burutuko da Euskararen Egunean

Artxiboa

dutenentzat autobusa aterako da herri- nahiko jende apun- tzen bada, noski.

Zamalbide eta eskola itxiak

Umeak eta ez hain umeak ere eskolan ha- siak dira. Denok daki-

gun bezala, Zubietako eskola itxia dago, arras haur gutxi zegoelako. Zamalbide elkar- te- a ere itxia dago er- res- ponsa- bilitateen arazoaren- gatik.

Bestalde, euskaldun berriak joan dira aur-

tengoz. Irailean inoiz baino gutxiago etorri dira eta, egia esan, he- rri- ko jendearekin ez dute harreman haun- dirik izan. Dena den, beuren kontura ibili di- ra, hara eta honara mu- gituz.

la 100 milioi pezetakoa da Iturengo udal aurrekontua

Makilipurdiko oihan aprobetxamendua enkantean atera da

IBAN ISASI

1995eko udal au- rrekontuaren behin behineko onespeneren iragarkia ekainaren 23ko Nafarroako Al- dizkari Ofizialean argi- taratu zen. Hamabortz eguneko epea iragan zen eta tartean erre- klamaziorik aurkeztu ez zenez, uda pasatu ondoren, behin betikoz onartu da. Guztira 99.882.542 pezetakoa

izanen da udal aurre- kontua, diru sarrera nahiz irteeretan.

Zuhaitz enkantea

Irailaren 25eko Nafarroako Adizkari Ofizialean oihan en- kante baten iragarkia zetorren: Iturengo uda- lak plegu itxiaren bi- dez enkante edo su- basta publikoan jarri du honako oihan apro- betxamendua: Lote ba-

karra (Makilipurdi al- dean): bertako 364 pa- go eta haritz, 143,1 m³ zur, 39,1 m³ adarki eta 94,5 m³ eguregiten du- tenak. 1.258.600 pe- zetatan baloratu da mendi aprobetxamen- du hau.

Proposamenak irai- laren 26an hasi eta urriaren 11ko arratsal- deko 1ak baino lehe- nago aurkeztu behar- ko dira udal idazkari-

tzan. Udalaren bal- dintzak ere leku bere- an aurki daitezke.

Joaldunen Eguna

Eguraldi ikaragarria egin ez bazuen ere, gi- ro ona nagusitu zen irailaren 23an ospatu- tako Joaldunen Egu- nean. Trikitilariak be- raien doinuak zabal- tzen ibili ziren egun osoan zehar eta jende dextente bildu zen.

ttipi-flash

Beintza-Labaien

Ameztiako mendi pista hobetzeko 7,1 milioi pezetako di- rulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak. Milioi bat aurten eta gai- nerakoa datorren ur- tean emanen dute.

Bidasoa eta Berroarango

Mendien Juntak 30 milioi t'erdiko laguntza jasoko du zenbait mendi pis- ta hobetzeko. Be- hobia, Añerdi, Bustilan, Zimiz- tegi, Larrakaitz, Altsuperea eta Ez- kingo pistak hobe- tuko dira. Milioi bat aurten emanen da eta gainerakoa datorren urtean.

Gudari Eguna

Malerrekako KAS- ek antolatua hain- bat ekitaldi burutu da. Doneztebeko zi- neman bideo era- kusketa eta solasal- di batez hasi zen. Biharamonean, irai- laren 27an, Donez- teben konzentrazioa egin zen, txalapar- ta jo zen eta komu- nikatu bat irakurri. Ekitaldiak Iturenen akitu ziren. Garai guztietako gudariei omenaldia egin zi- tzaien, bideoa era- kutsi eta manifesta- zioa. Ekitaldia *Eus- ko Gudariak* kan- tatuz akitu zen.

Lozabiango ehiza postua milioi erdi batean adjudikatu zen

Sexteoan prezioa igotzeko aukera igande honetan akitu zen

Lehendabiziko enkantean inork ez zuen Lozabiango ehiza lekuarengatik eskatzen zen milioia ordaintzeko asmorik agertu. Hamabortz egun beranduago bigarren enkantea egin zen, oraingo honetan eskaintza librearek zirelarik.

Guztira hiru eskaintza agertu ziren, Hondarribia, Doneztebe eta Larraungo ehiztariek presentatutakoak. Horien artean, Larraungo Pedro Manuel Barberiak aurkeztutakoa izan zen onena, milioi erdi bat eskainiz. Honela, behin behineko adjudikazioa beretzat izan zen. Igande honetan akitu zen,

sexteto bitartez (prezioaren seitik bat gehiago ordaindu beharko litzateke) eskaintza hobetzeko aukera.

HAUTESKUNDEAK AZAROAREN 5EAN

Beintza-Labaiengo udala osatu gabe dago oraindik, maiatzaren 26ko hauteskundeetan ez baitzen talderik aurkeztu. Orain, azaroaren 5ean burutu behar dira hauteskundeak, horretarako talderik aurkezten bada, noski. Irailaren 28tik urriaren 2ra arteko epea zegoen taldeak aurkezteko eta hau idazterakoan ez zen inor presentatu, udal idazkari-tzatik adierazi dutenez.

Lanak eginen dira Sunbillako saihesbidean eta Goizueta eta Arano arteko errepidean

100 milioi inbertituko ditu Nafarroako Gobernuak

Bidasoa ingurua eta Sunbillako saihesbidean bertze zenbait lan osagarri egiteko 22,1 milioi pezeta inbertituko ditu Nafarroako Gobernuak.

Bertzeak bertze, harri erorketak izaten diren zati bat eskabadorarekin garbituko da eta atsedean lekua egokituko da. Eraberean, baserri baterako ur horniketa lanak eginen dira, saihesbidea egiterakoan iturri batetik zuen ur hartzea moztu baizitzaion. Hiru pareta ere eginen dira Herrilan, Garraio eta Komunikabideetarako sailak bultzatutako lan haue-tan.

GOIZUETA ETA ARANO ARTEKO 8 KILOMETRO MOLDATUKO DIRA

87,4 milioi pezetan eginen du Pavimentos de Navarra enpresak Goizueta

eta Arano arteko errepidearen zortzi kilometro moldatzeko lanek. Zehazki esateko, Leitza-Goizueta-Hernani errepidean, 31,715 eta 39,715 kilometroen artean eginen dira lanak. Tarte honetan, Goizuetako irteeratik Aranora doana alegia, bost metro t'erdia eskaxeko zabalera du errepideak, batzaz beste eta zola egoera kaxkarrean dago.

Zolaberritzeaz gain, 2.572 metrotan segurtasun langa berria jarriko da eta beste 1.424 metrotan, gaur egun dauden langa hondatuak berrituko dira. Azkenik, errepidea eta artzena garbituko dira, petrillak bota egiten dira eta marrak margo-tuko dira. Lanak hasten diren momentutik lau hilabete epea izanen da horiek bukatzeko.



BORTZIRIAK-MALERREKA eta BERTIZARANA

Doneztebeko Udala

Astelehena eta ortzirala. 9etatik 14etara
Tfnoa. 451 654

Lesakako Udala

Astearte 9-14
Tfnoa. 637 061

Berako Udala

Ortzegunetan 10-14
Tfnoa. 630 005

Igantziako Udala

Hilabetearen lehen ortzegunetan 16-18
Tfnoa. 637 781

Etxalarko Udala

Hilabetearen bigarren ortzegunetan 12,30-14,30
Tfnoa. 635 005

Arantzako Udala

Hilabetearen hirugarren ortzegunetan 12,30-14,30
Tfnoa. 634 005
(Arantxa Arregi)

LEITZARAN

Leitzako Udala

Ostiralean 11-13
Tfnoa. 610 676

Goizueta eta Arano (udaletan)

Ostiralean, lehenagotik deituz gero.
(Ana Martinez. Lekunberriko tfnoa. 60 46 19)

BAZTAN

Elizondoko Udala

Astearte eta asteazkenetan 9-14
Tfnoa. 580 561

Urdazubi eta Zugarramurdi

Ortzegunetan, lehenagotik deituz gero
(Isabel Elizalde)

GARAPEN AGENTZIAREN ZERBITZUA
ESKEINTZEN DIREN ZERBITZUAK
DIRU-LAGUNTZEN informazio eta tramitazioa:
• ETXEBIZITZAK BERRITZEKO
• ENPRESA TXIKIAK eta ERTAINAK martxan jartzeko
• ZERBITZU TURISTIKOAK irekitzeko
(Hotelak, landa etxeak, kanpinak, jatetxeak...)
• AUTOENPLEGUA
Zure NEGOZIOA MARTXAN PARATZEKO legea eta beharrezko
gauzen gaineko aholkua eta informazioa ematen dugu

Goizueta


Irtenbide bat bilatu zaio Leitzarango azinden arazoari

Mugaz muga itxiko du mendia Nafarroako Gobernuak

ESTEBAN AROZENA

Azken urtebete honetan hainbat bilera, buruhauste, amorrazio eta kezka sortu duen gaia, Leitzarango bailaran alhatzen diren azindena alegia, konponbidean egon daiteke azken egunotako akordioak betetzen baldin badira, behintzat.

Nafarroako Gobernuak hitza eman du Arano, Leitza eta Goizueta herriek Gipuzkoako inguru haiekin dituzten mugak alantrebeko zerrakuraz itxiko dituela, hemen go ardi, behor eta behiak hara igaro ez daitezten. Baldintza bat jarri du halere, Gobernuak: itxituraren mantentimendua herritarren esku egotea. Hasiera



Goizueta inguruko eremuak mugaz muga itxiko omen ditu Nafarroako Gobernuak

Artxiboa

batean artzaiak ados ez egon arren honekin, azkenean baiezkua eman zioten joan den larunbatean zortzi egindako bileran, beharbada beste aukerarik ikus-

ten ez zutelako.

Gipuzkoako Diputazioak Leitzarango zona batzuk landatu zituen hasi zirela arazoak. Goizuetako azindak kalte haundia egi-

ten omen zituzten landaketa hauetan, eta horren ondorioz, ardiak eta betizuak bahitzeari ekin zioten Gipuzkoako mendizainek. Diputazioaren asmoak be-

teko balira, balizko kalte hauek larrutik ordaindu beharko lituzkete herriko artzaiak, 600.000 pezeta inguruko isunak jaso baitituzte batzuk. Dena den, multa hauek epaitegietan daude, eta seguru aski, errekurtsioa aurrera aterako da, adituek diotenez "landaketa jakin batean egindako kalteak konkretuki zeinen azindek egindak diren jakitea ezinezkoa baita". Bidegabekeria edo injustizia hitzak erabili zituen artzai batek iritzia galdetu genionean. "Nere 40 ardiek egindako kalteengatik 600.000 pezetako isuna ordaintzez gero, baserria ere saldu beharko dut artaldearekin batera".

Areso

Autobiak sortutako kalte gehienak ordaindu ditu Nafarroako Gobernuak

Herritarren elkartarekin bilera izan zuten

JUANA M^a SAIZAR

Irailaren 14an Aresoko udaletxean bilera egin zen herritarren elkarte eta Nafarroako Gobernuaren artean. Aurrepausoa eman zen autobiaren kalteak diru eta egindako erreibindikazioetan. Dirua ordaindu zieten kalte gehienei, oraindik bat edo beste kobratu gabe galditu baldin ba-



Autobiak sortutako kalteak ordaintzen ari dira poliki-poliki

Artxiboa

da ere. 'Cubiertas y MZOV' enpresarekin gelditzen diren ordaintzak eta zorak ordaintzeko bere laguntza eskaini zion herritarren elkarteari Nafarroako Gobernuaren ordezkariak. Hiruen arteko bilera laister eginen da Aresoko udaletxean. Azkeneko puntu garrantzitsua hau izan zen: Nafarroako Gobernuak baiezkua

eman dio herritarren elkarteari ingurugiroan gelditu diren moldaketak errespetatzeko eta batipat autobia gure herritik ahalik eta gutxien entzun eta ikusi dezagun.

Larrebehiak eta ardiengatik subentzioa eskatzeko eskubidea izateko, urriaren 8a baino lehen egin behar da eskakizuna Nekazal Bulegoan.

Leitza

Euskara teknikari izateko bi lanpostu deialdi ireki dira

Leitza-Larraun-Ultzamako Euskara Zerbitzuan arituko dira

JOSEBA AZPIROZ

Leitza-Larraun-Ultzamako Euskara Zerbitzuan, euskara teknikaria izateko bi lanpostuen deialdia zabalduko zela aurreratu genuen aurreko alean. Hilabeteko epea izanen da izena emateko. Teknikarien ihar-duera lau arloetan garatzen da: euskaldunen kopurua ugaltzeko ekitaldiak; herriaren euskararekiko motibazioa eta kontzientzia sustatzeko kanpainak; hizkuntzaren erabilera zabaltzeko ekitaldiak eta euskararen erabilera Administrazioan normalizatzeko ekitaldiak. Lan kontratuak urte beteko iraupena izanen du, hiru urtez luzatzen ahal dena. Bete beharreko baldintzak, berriaz, EGA titulua edo baliokidea, erdi mailako tituluaren jabe izatea eta ibilgai-luak gidatzeko karneta izatea.



'Okile' ezinduen tailerrarako lanpostu finkoa betetzeko lehiaketa deialdia onartu du Udalak

Artxiboa

Formakuntza Okupazionalako ikastaroen xehetasunak erabakitzeke bilera urriaren 9an

Urriaren bukaera aldera hasiko diren Helduen Formakuntza Okupazionalako ikastaroen ordutegiak, programazioak eta gisa horretako xehetasunak erabakitzeke, bilera egingen da urriaren 9an. Bilera guziak, Lanbide Heziketa Institutuan egingen dira arratsalde-

ko 3etatik aurrera.

Aurten 7 talde osatu dira eta jostura ikastaroan izena emana dutenak, esaterako, 3-etan bilduko dira eta jostura industrialeko ikastaroak 3,30etan. Lehen aldiz antolatu izan ahal den geriatria ikastaroak 4etan bilduko da, ehungin-

tzakoa, 4,30etan, eskulangintzakoa 5etan, ingelesekoa 5,30etan eta informatikakoa 6etan. Itxura denez, su-kaldaritza, kontabilitatea, marrazkigintza eta horrelako ikastaroetan jende gutti apuntatu da, eta hauek, denak batera bilduko dira 6,30etan.

Okile tailerrarako lanpostua

Udalak Okile ezinduen tailerrarako monitorearen lanpostua behin betirako (Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ematen dituen bitartean) betetzeko lehiaketaren deialdia onartu du. Eskerak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da NAOn argitaratzen denetik. Euskara jakitea eta gidatzeko karneta izatea beharrezkoa da. Puntuak emanen dizkiete ezinduekin lan egindakoei eta gai horretaz ikastaroak egindakoei. Xehetasunak aipatutako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Ondasun komunalak

Ondasun komunalen (irastorleku, lizardi eta gaztainadi) hitzarmen transakzionalak egiten hasi ez direnak jakin behar dute urriko batzarrerako eskatzen ez direnak, Nafarroako Gobernuak ez dituela onartuko. Beraz, hitzarmena eskatu nahi izanez gero, azkar mugitu beharra dago.

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

LANCHAS


- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305



**BEINTZAKO
OSTATUA**

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN



Esker Onak • Urtemugak • Eskelak

Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapa**k eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:

© 63 11 88

Baztan

Azienda lehiaketako sari gehienak Legasako Indart anaiantzat

Pirenaika arrazako 304 behi, Auritz arrazako 63 zaltabere eta latxa ardi azienden 17 lote ikusgai izan ziren Elizondon

JOSEBA IGARABIDE

Legasako Peruenea baserriko Indart anaiak nagusitu ziren joan den irailaren 24an Elizondon burututako pirenaika arrazako behi, Auritz-Burgete zaldiarrazako eta latxa ardi azienden estatu mailako zortzigarren lehiaketa enkantean.

Behi eta zaltaberen artean, adibidez, hamaborts lehen postuetatik hamabi beraientzat izan ziren. Zaldietan lehenbiziko postu guztiak eta ohorezko 35 postuetatik 30 eskuratu zituzten. Baztandarren artean, Gartzaingo Evaristo Otxandorenak bortzgarren sari bat sakele-ratu zuen. Behien artean, zortzi lehen sarrietatik borts Legasakoentzat izan ziren. Hiru eta borts urte arteko behien saria Gartzaingo Juan Cruz Ormartek eraman zuen Elizamendia baserrira.

Latxa arrazako ardi azienda lehiaketara sei ardi eta ahariko batekin osatutako loteak aurkeztu behar ziren eta sariak banatuagoak izan ziren. 6 eta 18 hilabete arteko lote onena Elbeteko Erro-



Goi mailako aziendak ikusi ziren estatu mailako lehiaketa-enkantean

Argazkia: ONDIKOL

taxain baserriko Vicente Goienetxek aurkeztu zuen. 18 eta 36 hilabeteko artean bigarren saria Almandozko Norberto Agerrek lortu zuen.

476 AZIENDA

304 behi eta aretze, 63 zaldi eta behor eta ardi eta ahareekin osatutako 17 lote ikusi ahal izan ziren Elizondoko Merkatu Plazan. Egu-raldiak lagundu ez bazuen ere ia 5.000 lagun bildu ziren ikuskizun honetaz goxatzeko eta, zenbait kasutan, arraza garbiko behi azienda enkantean parte hartzeko.

Formakuntza ikastorokoan bilera urriaren 10ean

Urriaren hondar aldera hasiko diren Hel-duen Formakuntza Okupazionalako ikastaroen ordutegiak, programazioak eta gisa horretako xehetasunak erabakitzeko, bilerak egingen dira urriaren 10ean Elizondoko Lanbide Heziketa institutuan, arratsaldeko 3,30etatik aitzinera.

Jostura ikastaroan izena emana dutenak, errate baterako, 3,30etan bilduko dira, artisautza ikastarokoak 4etan, marrazki eta

margoketakoak 4,30etan, sukaldaritza ikastarora izena eman dutenak arratsaldeko 5etan, frantses ikastarokoak 5,30etan, ingeles ikastarokoak 6etan, mobleen berri-tatze ikastarokoak 6,30etan, informatika-koak 7etan eta azketnik, taldea osatzeko haina jende elkartu ez duten ikastaroetakoak (pelukeria, fruitu-zaintza, mekanika, etab...) arratsaldeko 5,15etan bilduko dira leku berean.

ttipi-flash

FM antena

berri bat Gorramendin ezartzea 14,2 milioi pezeta gostako da. Nafarroako ipar aldeko FM seinalea aunitzez hobe aditzeko balioko duen lan hau Sistelec enpresak egingen du.

Lur trukaketa

Udalak zituen 4.488 m² Cristina Aznalen bertze 4.531 metrorekin aldatu ditu. Modu honetan, herri lurretan zegoen lur zati partikular bat komunal da orain.

Baztango bertso eskolak ikasturte berri bati ekinen dio. Izena emateko 592235 telefonora deitu (Bittor).

Zubiak moldatzen

Berekoetxea zubia moldatzeko aurrekontua 1.951.120 pezetakoa da. Inarbegi errekan, Agerrea baserrirat doan zubia hobetzea 1.883.840 pe-zeta gostako da. Laguntza eskatu zaio Mendi Sailari.



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO



ARROPA DENDA



CERVANTES

HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak

Eska itzazu aurrekontuak

Juana M. Urrutia

Gartzaingo bestak urriaren 11tik 14ra, Pilarikaren omenez

Duatloiaren bigarren edizioa burutuko da ortzegunean eta ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol partidua ortziralean


GARTZAIN

Heldu den asteazkenean, urriak 11, arratsaldeko 6etan eginen den ezkil jotzearekin hasiera emanen zaie aurten Gartzaingo Pilarika bestei. Gaueko 9etan baztan zopak izanen dituzte afaltzeko eta gauez dantzaldia Goiuri taldearekin.

PILARIKA EGUNA

Biharamonean Pilarika egun nagusia ospatuko da. Goizeko 10etan txistulariak herrian barna ibiliko dira. 12,30etan Meza Nagusia Pilarikako ermitan. Ondotik mutil-dantza eta luntxa ere banatuko da. Arratsaldeko 4,30etan II. Duatloia, hau da, txirrindulaz eta laisterka egin beharreko proba burutuko da. Arratsaldez eta gauez dantzaldia Goiuri taldearekin.

Ortziralean, urriak 13, goizeko 11etan ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol partidua interesgarria jokatuko da. 2etan zikiro-



Javier Santxotena, eskulturagilea

D.Noticias

Museoa egin nahi du Bozaten Santxotena

"Nere eskultura lan guztiak bilduko dituen museo irekia zabaldu behar dut Bozaten". Sortzez arizkundarra eta gaur egun Gasteizen eskulturagile eta sukaldari lana betetzen duen Javier Santxotena hitzak dira. "Nere arbasoen lurra-ri eskainitako aportazioa izanen da, -azpimarratu du Santxotena- nere anai agoteren harrotasunerako".

Hiru Erregeen Mahaia, Aita Donostiri omenaldia eta Bertolari izeneko eskulturak dira arizkundarraren lanik ezagunenak, bertze guztiak bezala egurra landuz eginak.

Larunbatean Hau- rren Eguna ospatuko da. Eguerdi aldeara mus txapelketa jokatuko da. Arratsaldeko 4,30etan haurren jo-koak eta 'Popi eta Zara-

trako' antzerki taldearen emanaldia. Ekitaldi honek, Baztango udalaren laguntza du. Arratsaldez eta gauez, Goiuri taldearekin dantzaldia

elkartek zikiro jatea antolatu zuen 25 urtez lehendakari izandako Angel Sarasolaren omenez. 80 pertsona bildu ziren eta Angelek sariak jaso zituen gaur egungo lehendakaria eta Balleko Etxeko ordezkarien eskutik.

ttipi-flash

Urruskako

mendi pista hobe- tze-ko 11,2 milio pe- zetako dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak. Milioi bat aurten emanen da eta gainerakoa datorren urtean.

Mikel Altzuart

intsumitu arizkun- darra Iruritan atxi- lotu eta Iruñeko espetxean gartze- leratu zuten. Bere askatasuna eska- tuz irailaren 24an egindako manifes- tazioan 250 lagun bildu ziren. Mikel AEKko irakaslea denez, erakunde honek ere bere protesta adierazi du.

Ehizi eta Arrantza

elkartek zikiro jatea antolatu zuen 25 urtez lehendakari izandako Angel Sarasolaren omenez. 80 pertsona bildu ziren eta Angelek sariak jaso zituen gaur egungo lehendakaria eta Balleko Etxeko ordezkarien eskutik.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**UDAZKENEKO
PUNTA-PUNTAKO ARROPA**

*Puntuzko jertseak, telak eta
eskulanetarako materialak*



ZURE
ARGAZKIAK
ORDU BATEAN
EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIK

IA 100 URTE KALITATEA ETA
PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25



Sara

Xanpun: mende erdi bat bertsoan

Donibane Lohitzunen omendu zuten buruilaren 24an Sararat auniztan hurbiltzen den bertsolaria

MIXEL ETA JACQUELINE

Aurten ere Xanpun besta asteazkenez gu-re artean ginuen ber-tze bertsolariekin. Egia erran hunek Sararat etortzeko ohidura haundia dauka eta orroitarazi behar da duela berrogoita ha-mar urte hemengo pla-zan xapelketa batean parte hartu zuela eta hirugarren saria ere-man, 22 kiloko xerria!

Buruilaren 24 hun-tan Donibane Lohitzu-nen gaitzeko omenal-dia egin diote hama-bortz bertsolariek eta jendea ugari bildu da. Eliza mukuru bete da goizean eta omenaldi-ko meza Iparraldeko 3 euskal irratietan zuze-nean zabaldu da. Eguerditan 600 bat la-gun bildu da bazkal-



Xanpun, aurten, Sarako bestetan

tzeko eta milako bat bertsozale hurbildu di-ra bertso saiorat. Opari eta laudorio aunitz

ukan ditu. Donibane-koaren aitzinetik, Urru-ñan, Donostian eta Oñatin omendu zuten.

Sarako bestetan giro ona nagusitu zen

Herriko bestetan jendeketa haundia ibi-li zen, aroa ez beti al-de izanik ere eta arras giro onean iragan zi-ren. Egunik azkarre-na igandea izan zen bainan, zorigaitzez, seiak irian mukuru be-tea zen plaza enbatal-di batek hustu zuen. Ordu baten, buruan dena lasaitu zen. Eskerrak beraz anto-latzaileeri, baitzen zer entzun, zer ikus eta zer egin.

Olhain ikastolak le-hen aldikotz zikiro ja-tea antolatu zuen, as-telehena kari eta eki-taldi hunek ere arra-kasta ukan zuen. 180 bat lagun bildu zen he-rri bazkari hortan.

Erran dezakegu besta hauek zinez bai-

korrak izan direla i-txura guzien arabera, astearte arratsean gaz-teek aurkeztu duten "sketch" delakoa sal-bu. Hemen toberaza-le aunitz balinbada ere, aurtengo emanal-dia ez da denen gus-tukoa izan, bereziki familiakoentzat. Ondorioz, ahaideek gutun baten bidez hau salatu dute. Beraz hau kontutan hartuta bes-ten elkarteak bildu da eta onhartu du 'an-tzerki' hau arinki as-matua izan zela eta erabaki du hemendik aintzina ezin dela nor-baiten izaeraz baliatu eta guziz hau herrikoa delarik.

Agian neurri hau errespetatua izanen da, denen onetan.

SOULE

Gurutze eta hilarriak

☎ 453038 ARIZKUN

☎ 123572 IRUÑA

**MENDI
OSTATUA**

Santiago 25 - ☎ 580313

ELIZONDO

HERRIKO ETXeko EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA



MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

**SUKALDE ETA
BAINU MOBLEAK**

*Egoki-ren baratzarile
baimendua*



Urdazubi

Ikasturte berriari ekin diote berrogeita bederatzi haurrek

Laister, Ustaritzeko igerilekurat gaten hastekoak dira

ALIZIA OLAIZOLA

Zugarramurdi eta Urdazubiko 49 ikaslek ikasturtea hasi zuten, irailaren 11n. Lehen-dabiziko asteetan, klaseak goizez bakarrik izan dira, hiru urtetik goitiko haur guztiak eskolatu dira, aurren bida. Ustaritzeko igerilekurat gaten hasi behar dira laister eskolako haurrak. Normalki astean behin eta goizez gaten dira.

Ikastaroekin segituz, aurren gimnasia saioak antolatu dira herrian, Arkupeak elkar-teak antolaturik. Iaz



Haurren udako bakantzak finitu ziren

ezin izan zen egin arazo batzuegatik, baina aurren lortu da. 30

lagunek izena eman dute, hauetatik batzuk jubilatua dira eta ber-

tzeak parte hartu nahi duten gazteak. Urrian hasiko da ikastaroa.

Ezkontza eta bataioak

Aurtengo lehen-dabiziko ezkontza irailaren 16an izan zen. Herriko neska gazte bat, Fermi Etxart ezkondu zen Azpilkuetako Pello Jaurenarekin eta herrian gelditu dira bizitzen. Zorionak.

Urriaren lehenean, bi bataio izan ziren, aurtengo lehen-dabizikoak. Jon Irigoien Mendibururena eta Jon Ander Bengoetxea Azkarraga bataiatu dituzte.


Zugarramurdi

Alfredo Jurio herriko intsumitua Iruñeko presondegian

Frontoieko jatetxea, bertzalde, subastan atera da

KORO ETA MARGARI

Intsumisioaren arazoa dela eta Alfredo Jurio gaztea gan den irailaren 20tik Iruñeko presondegian dago. Ekainan epaiketa egin ondoren bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra ezarri zioten. Irailaren 18an gartzelara sartu behar zuelako abisua eman zion Goardia Zibilak eta erran dugun bezala, 20an bere burua aurkeztu zuen Iruñeko presondegian. Ustez, lehenbiziko astean bigarren graduaren egon



behar zuen (egun osoa gartzelan), baina gero hirugarren gradura pasatuko da (lo egitera bakarrik ganez eta asteburuak libro). Nahiz eta zigorra bi urte pasakoa izan, denetara hamalau hilabete pasatu beharko ditu.

Dagoeneko hirugarren gradua eskuratua du Alfredo Jurio intsumituak

Artixboa

Frontoieko jatetxea subastan

Udalak frontoneko jatetxea saltzeko enkante edo subasta deia egin du. Gan den irailaren 14an publikatu eta hogeita eguneko epea dute interesatuta daudenek proposamenak egiteko Herriko Etxeko idazkaritzan. Enkantean parte hartu ahal izateko oinarritzko kantitatea 42 milioi pezetakoa da eta xehetasun gehiago behar izanez gero idazkaritzara deitu.

EZKONTZAK

Pello Agerralde Mendiburu eta **Ana Jesus Oteiza Ugarte**, Zugarramurdi eta Oronoz-Mugairikoa, irailaren 22an.
Thierry Porcher eta **Elisabeth Delavaud**, Saintes eta Sarakoa, abuztuaren 5ean.

Olivier Imbert eta **Isabel Pose**, Meuilly sur Seine eta Sarakoa, irailaren 1ean.

Pascal Aduriz eta **Regine Monin**, Sara eta Baionakoa, irailaren 23an.

François Moyano eta **Murielle Txapartegi**, Biarritz eta Sarakoa, irailaren 30ean.

Fco Javier Ugarte Esain eta **Amaia Irazoki Jimenez**, Donostia eta Berakoa, irailaren 15ean.

Juan Carlos Pikabea Etxebeste eta **Ana Isabel Irazoki Mikelperizena**, Berakoak, irailaren 16an.

Jose Manuel Morcillo Gomez eta **Isabel Sanchez Oiartzabal**, Granada eta Berakoa, irailaren 16an.

Antonio Lazkanotegi Mujika eta **Irene Matxiarena Aldalur**, Berakoak, irailaren 23an.

Pello Jaurena Azkarraga eta **Fermi Etxart Maia**, Azpilkueta eta Urdazubikoa, irailaren 16an.

Magdalena Salaberria eta **Laurentino Otero**, Sunbilla eta Leongoa, irailaren 17an.

Juan Jesus Gaztelumendi eta **Maite Jorajuria**, Sunbilla eta Doneztebekoa, irailaren 24an.

Juan Carlos Almandoz Mitxelena eta **Isabel Lukanbio Gonzalez**, Arantzakoak, irailaren 16an.

JAIOTZAK

Miren Lasaga Goienetxe, Etxalarkoa, apirilaren 11n.

Intza Gartxitorena Urdanpilleta, Berroetakoa, irailaren 13an.

Jon Osakar Iturria, Elizondokoa, irailaren 11n.

Ana Antxorena Sobrino, Arizkungoa, irailaren 17an.

Pello Gastearena Antsalas, Oronoz-Mugairikoa, irailaren 19an.

Alberto Ostiz Gartxitorena, Doneztebekoa, irailaren 13an.

Amandine Ordoki, Sarakoa, irailaren 11n.

HERIOTZAK

Andres Loiarte Loiarte, Goizueta-koa, irailaren 24an, 62 urte.

Jose Maria Ariztegi Sanzberro, Etxalarkoa, irailaren 26an, 78 urte.



JATETXEA

Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

Eskisaroi
Jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO



HIRI ARTEKO, ESTATU
BARNEKO eta
NAZIOARTEKO BIDALKETAK

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • **ORONAZ MUGAIRI**
Tfnoa eta Faxe: 592179

ETXANDI
TXOKO
erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo	 452367 / 580235
Doneztebe	 450300
Lesaka	 637428 / 637336
Leitza	 510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea	 102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua	 246750
Virgen del Camino	
Erresidencia	 109400
Gurutze Gorria	 226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	 614600
Gipuzkoako ospitalea	 460299
Erresidencia	 453800
Anbulatorioak	
Irun	 630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz	 450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak)	 (943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak)	 171717
FUNERARIA	
Doneztebe	 450475
Elizondo	 580924
Lesaka	 637404
Suhiltzaileak	
Oronoz-Mugairi	 592255
Garraioak	
Bidasotarra	 631150
Baztanesa	 580129
Leitzarari	 515018
Aberiak:	
Iberduero	 450335 / 450336



Bidasoa bazterretako mendizainak suhiltzaile bolondresak eta Foresna-Zurgaiako kideak Iparraldean ibiliak dira berriki hango mendi eta oihanetan egiten dituzten lanak ikusi eta darabilten teknikak bertan ikusteko.

Intsumisio egunerako autobusa antolatu da

Igande honetan, urriak 8, Bermeon ospatuko den Intsumisio Egunerako autobusa antolatu da Bortzirietan. Apuntatzeko, Berako Errekalde eta Lesakako Arrano ostatuetan eman behar da izena eta 1.100 pezeta utzi. Apuntatzeko azken eguna urriaren 6a izanen da, ortzirala. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, *'inportantea da interesatuak direnak aipatutako epean izena ematea eta ez uztea azkeneko momenturako lekua izanen delakoan'*.

Helduendako Euskal Kantu Txapelketan izena emateko epea zabalik azaroaren 10a bitarte

Iruñea eta Leitzako kanporaketen ondotik, saio nagusia Donezteben egingen da abenduaren 16an

Nafarroako Euskal Irratiek hartu dute bere gain Txapelketa honetarako jendea animatu, partehartzaile eta antolatzaileei elkarrizketak egin, giroa sortu eta parte hartu nahi dutenen izenak biltzeko lana. Hortaz, Leitzeko Karrape Irratia (610914), Aezkoako Irati Irratia (764376), Baztango Xorroxin Irratia (581226), Larraungo Aralar Irratia (604503) eta Iruñeko Euskalerria Irratia

(171232-170151) dira parte hartu nahi duenak izena ematerakoan kontutan hartu behar harko dituen telefono zenbakiak.

BALDINTZAK

Txapelketa hau helduendako da, 15 urtez gorakoentzat, 15ekoak barne. Banaka, binaka edo taldeka aurkez daiteke. Diskolana argitaratu dituztenek ezin izanen dute parte hartu, bakarrik afizionatuendako da. Musika tresnak era-

matea edo ez, aukeran dago, kantu bat edo bi ematea dagoen bezalaxe. Kontutan hartu behar da, epaimahaiak hiru partehartzaile aukeratu dituela datoren urtean burutuko den Euskal Herriko Txapelketa Nagusira joateko.

Txapelketak bi kanporaketa izanen ditu: azaroaren 25ean Iruñeko Aita Salestarren aretoan lehena eta Leitzako zineman abenduaren 2an bigarrena.

CALVO

JANTRIDENDA

TRASPASATZEN DA

LESAKAKO PLAZAN

PREZIO INTERESGARRIA

Interesatuak deitu gaueko 10etatik 11etara • Tfnoa: 63 72 54

Arantzako Donato Larretxea, Nafarroako aizkolarien txapeldun

Igande honetan, eguerdiko 12,30etatik aitzinera burutzekoa da Doneztebeko Bearzana frontoian, Euskalerriko aizkolaria txapelketaren finala

Arantzako Donato Larretxeak irabazi zuen irailaren 23an Ziordiko pilotalekuan Nafarroako aizkolaria txapelketa nagusiaren finala, modu honetan bere bigarren txapela jantziz. Bigarrena Mikel Mindegia izan zen, minutu bat eta 26 segundutara. Beraiekin batera, bertze hiru aizkolaria aritu ziren, Etxarri Aranzako Floren Nazabal, Beintza-Labaiengo Antonio Jaunarena eta Olagueko Antonio Senosiain. Egin beharreko lana, berriz, lau kanaerdiko, 60 ontzako bertze lau eta bi oinbiko mozteak ziren.

Hasierako bi enborrak Mindegia moztu zituen lehenik, Donatori hiruzpalau segunduko aldea ateraz. Hirugarrenean ordea, txapelduna aintzindu zen eta bukaera arte eutsi zion postu horri. Azkenean, uste baino alde haundiagoa aterazi zion arantzarrak 46 urteko aizkolaria haundiari eta joan den urtean Ezkurrakoak irabazi zuen txapela kendu zion. Nazabal urduri aritu zen proban eta ez zuen bere egiazko maila erakutsi, Jaunarena ongi ibili zen eta Senosiain, ordea, hagitx flojo ibili zen eta etsitua bukatu zuen bere lana.

1. D.Larretxea.....26'12"
2. M.Mindegia.....27'38"
3. F.Nazabal.....28'23"
4. A.Jaunarena.....29'38"
5. A.Senosiain.....33'47"



Nafarroakoaren ondotik, Euskalerriko txapela jantzi nahi izanen du Donato Larretxeak igande honetan Donezteben

Argazkia: EGIN

Euskalerriko txapelketa igande honetan Donezteben

Nafarroako final horretan aritu ziren hiru aizkolaria izanen dira igande honetan, urriaren 8an, Donezteben burutuko den Euskalerriko txapelketa nagusiaren finalean, Donato Larretxea, Mikel Mindegia eta Floren Nazabal, hain zuzen. Beraiekin batera hiru gipuzkoar: Arrospide, Olasagasti eta Peñagarikano. Donato Larretxea sasoi onean dagoela erakutsi du denboraldi

osoan eta Nafarroako txapelaz gain, Donostiako urrezko kopa errekorra eta guzti irabazi zuen, txapelketa nagusiko kanporaketan, bigarrena sailkatu zen eta parte hartu duen erakustaldi gehienetan arras itxura ona erakutsi du. Gerriko arazoak alde batera utzi dituela iduri du. Mindegia ere, 46 urte izan arren oraindik txapeldun haundia dela erakutsi nahi du.

Udazkenean kirol alternatiboak egiteko aukera BKZren eskutik

Udazkenean kirol alternatiboetan parte hartzeko aukera berri bat zabaldu du Bidasoa Kultur Zerbitzuak (BKZ).

Honela, igande honetan, urriak 8, Bertizko Erreparazeta zubian puenting egiten ahal da. 21ean mendi bizikleta travesia Bardeetan barrena eta 29an Bertiz-Txaruta-Bertiz egun osoko zaldi travesia.

Azaroaren 5ean, lau orduko hasierako piragua ikastaroa egingen da Goizuetan. 11 eta 12an hasierako eskalada Sunbilla. 19an mendi-zintzur jeitsiera Iparraldean eta 25

eta 26an, Bertiz-Saioa-Bertiz zaldi travesia, aterpe eta guzti.

Abenduan, azkenik, 17an rafting-egiteko aukera izanen da Urrobi errekan eta 24an, Zaldia Egun ospatuko dute Bertizen, prezio bereziak eskainiz.

Iharduerak egiteko gutxieneko kopurua 8 pertsonakoa da eta BKZk eskatzeko aukera ere ematen du, garraioa, materiala eta gidariak beraiek jartzen baitituzte. Informazio gehiagorako edo izena emateko 592322 eta 592102 telefonoetara deitu edo Bertizera joan.

Hamabostaldiko Jokaldiak



Donato Larretxea
Arantzako aizkolaria.

Sasoi betean dagoela erakutsi du Nafarroako aizkolaria txapelketan eta igande honetan Donezteben, Euskalerrikoan ere lanak emateko prest agertuko da. Ea gerriko arazoak behin betikoz ahazten dituen.



Antonio Senosiain
Olagueko aizkolaria.

Ez da inoiz punta-puntako aizkolaria izan baina Nafarroako txapelketan arras gaizki ibili zen. Jaunarenak lau minutu pasatuko aldea aterazi zion eta Larretxeak zer erranik ez, ia zortzi minutuko abantaila.

Ultzama eta Arraioz garaile Herriz herri txapelketako finalean

Basaburuakoek, berriz, hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten bi probatan

Irailaren 16an Larraintzarreko frontoian ospaturiko Nafarroako lehen mailako Herriz Herri txapelketako finala lehia ikusgarria eskeini zuten Ultzama, Basaburu eta Arraiozko taldeek. Lehenengo konbinatuan (kozkor biltzea, zakulariak, aizkolaria, korrikalaria eta arpanlariak biltzen dituen) Arraiozko taldea proba osoan zehar aitzinetik joan zen, baina arpanlariak eman behar zuten azkeneko kortean arpana trabatu eta Ultzamako arpanlariak aurrea hartu zieten, bi segunduko diferentziaz irabaziz. Talde bakoitzak eginko denborak hauek izan ziren:

1. Ultzama.....17'26"
2. Arraioz.....17'28"
3. Basaburu.....18'50"

Bigarren konbinatuan (ingudeak, txingak eta harrijasotzea biltzen dituen) Arraiozko tal-



Arraioztarrek ez zuten suerterik izan arpanan

Egin

dea suertatu zen txapel-dun: Ingudean Ultzamako kirolariak 1' 03"tan eman zituen 60 jasoaldiak, Arraiozkoak 1' 04"tan eta Basabu-

ruakoak 1' 08"tan. Txingetan Arraiozek 168 metro, Basaburuak 139,8 metro eta Ultzamak 111,7 metro. Azkenik, harrijaso-

tzean Arraiozkoak 40 segundutan egin zituen hamabortz jasoaldiak, Ultzamakoak 45"tan eta Basaburuakoak hamalau jasoaldi egin on-

doren utzi zuen harria. Hortaz, Arraioz txapel-dun 8 punturekin, bigarren Ultzama (6 puntu) eta hirugarren Basaburu (3 puntu).

Bate pronto

❖ Juan Carlos Garro

Berako txirrindulariak 53. postua eskuratu zuen Alemaniako burututako munduko mendi bizikleta txapelketan. Bere helburua hogeien lehenbizikoen artean sailkatzea bazen ere, ez zuen zorrote haundirik izan Garrok.

❖ Kirol taldeak TTPI-TTAPAN

Hurrengo atletikahitsa kirol ezberdinetako eskualdeko taldeen gorabeherak lerro hauetan plazaratzeko asmoa dugu. Nork osatzen duen taldea, entrenatzaileen iritzia, denboraldi honetako helburuak... Zeonek ere, zure taldearen berri eman nahi baduzu deitu lasai eta TTPI-TTAPAN txoko bat izanen duzu.

Baztango eskuz binakako pilota txapelketarekin hasiera emanen dio denboraldi berriari Txaruta elkarteak

Baztango bikotekako esku pilota txapelketari urriaren 15ean ematen zaio hasiera, maila ezberdinetan. Hamabi urte arteko kategorietan Baztan eta Malerreko haurrek ematen ahal dute izena. Hamabitik goitiko kategoriak, berriz, nahi duenak apuntatzeko libre izanen da.

Izena emateko epea larunbat honetan, urriak 7, akituko da eta

izena eman nahi duenak 580489 telefonora deitu behar du (Juanjo Atxa).

150 PILOTARI TXARUTA ELKARTEAN

Baztan eta Malerreko pilotariak eskolak biltzen dituen Txaruta elkarteak bederatzi eta hogeitasei urte arteko 150 pilotari inguru ari dira entrenatzen. Horietatik ia 100 baztandarrak dira eta gainerakoak, Malerreko-

ak. Astearte eta ortegunetan Elizondon izaten dituzte entrenamenduak baztandarrek eta astelehen eta asteazkenetan Donezteben Malerrekoak. Horretaz gain, Euskalerriko edo maila haundiko txapelketan parte hartzen duten bikoteek, asteartero biltzen dira Iruritan.

Juanjo Atxak adierazi digunez, entrenamendu ezberdinak izan

ten dituzte adinaren arabera. "Tiikienekin jokuak eta honelakoak izaten dira, gehien bat. Bertzeekin pilota jokua gauza bereziak lantzen ditugu; sakea, jokaldiak, puntuan jokatzen dute...".

Aurtengoan ere, hainbat txapelketa antolatu eta bertze horrenbertzetan parte hartzeko intentzioa dute Txarutakoek. Urte berriarekin batera, Eus-

kalerriko txapelketan arituko dira, ohorezko mailan. Iaz, txapelduak izan ziren senior mailan eta azpitxapelduak gazteetan. Nafarroako Herri arteko txapelketan joan den urteko emaitza errepikatzekeo intentzioarekin agertuko dira. "Taldea polita dugu -dio Atxak- eta suertea badugu, aurrean ere finalean sartzea izanen da gure helburua".

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

GARTZAIN

► **Urriaren 11tik 14ra.** Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

MIKOLOGI ASTEA

ELIZONDO

► Baztango VIII. Mikologi Astea izanen da urriaren 2tik 8ra.

► Urriaren 5ean

Hitzaldia «Baztango ziza eta onddoak, babestu behar diren baliabideak» Luis Garcia Bonak emana, arratsaldeko 8etan Arizkunenean.

► Urriaren 6an

Haurrendako erakusketaren muntaia.

► Urriaren 7an

Hitzaldi-Solasaldia Luis Garcia Bonarekin arratsaldeko 7etan Arizkuneneako Batzargelan. Aldiberean, espezie sailkatuen erakusketa ere zabalduko da.

► Urriaren 8an

Eguerdiko 12etatik 2ak artio Mikologi espezie sailkatuen erakusketa.

ANTZERKIA

GARTZAIN

► Urriaren 14an

Gartzaingo Bestetan «Popi Zaratrako».

ETXALAR

► Urriaren 8an

«Txirrista» taldea arratsaldeko 5etan.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Intxaur flana

Osagaiak 4 lagunendako

- 700 ml. esne • 7 arraultze • 250 gr. azukre • 150 gr. intxaur • bainila ale bat • esnegain montatua flana apaintzeko •

Prestatzeko manera

Intxaurrak xuritu eta 8 intxaur erdi gorde gero apaingarri gisa erabiltzeko. Gainerakoak birrindu. Moldean karameloia prestatu 50 gr. azukre eta ur pixka ba-

tekin. Intxaur erdiak karameloan bainatu eta ateri. Molde guzia karameloz igurtzi eta utzi hozten. Esnea berotu bainila alearekin. Bitartean, ontzi batean 2 arraultze oso, 5 arraultze gorringo eta gelditzen den azukrea ongi irabiatuko ditugu eta pixkanaka esne beroa gehituko iragazki batez baliatuz eta guzia nahasteari utzi gabe. Azkenik



Justa
OSTOLAZA
Etxandi-Txoko
Jatetxekoa
• ITUREN •

intxaur birrinduak bota eta guzia moldean isuri. Moldean bainu-marian jarri, aluminiozko paperekin estali eta 50 minutuz sartu labean. Moldetik ateri eta intxaur eta esnegainez apaindu.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoak): 5.000 pzta.
- **Zerri gizena** (95-100): 170 pzta./kilo
- **Zerramak**: 120-125 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**:
- **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanal
- Extra 560
- 1.koa 540
- 2.koa 520

- **Urruxak**: Pzta./kg. Kanal
- Extra 570
- 1.koa 550
- 2.koa 510
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urru-xentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak**: urruxak 20.000 eta idixkoak 30.000 Pzta.
- Mestizoak**: urruxak 32.000 eta idixkoak 45.000 Pzta.
- Behi zaharrak**:
- Behi nabar gizena: 400 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 480 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- **Bertako sagarrondoa** 950.
- **Udareondoa** 950 pzta.
- **Gereziondoa** 1.050 pzta.
- **Aranondoa** 1.050 pzta.
- **Muxika** 870 pzta.



❖ BARAZKIAK ❖

- **Porruak** zientoa 300.
- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.

ttipi-ttapa



Ameriketara bidaltzea erdi prezioan gure bitartez

Frankeo Kontzertatuari esker, errebista berbera guk bidali ezkeru, zuk bidaltza baino erdi prezioa kostako zaizu.

Interesatua bazaude, deitu

Iparraldetik deitzeko 19-34-48-
Hegoaldetik deitzeko 948-

631188 ra

Cederna-Garalur: ordezkari berrien izendapena

Agentzia honek kudeatzen ditu Europako Ekonomi Elkartetik Nafarroako Landa lurraldeen garapenerako datozen dirulaguntzak. 1991n sortu zen eta bere baitan biltzen dira 13 eskualdetako udal, sindikatu, elkarte eta enpresetako ordezkariak.

Irailaren 23ko Batzarrean izendatu zituzten eskualde hoietako ordezkariak eta Elkarteko Zuzendaritza Batzordea. Ordezkari berriak honako hauek izendatu zituen batzarrak: **Baztan:** Patxi Oiarzabal, **Leitzarain:** Gabriel Saralegi, **Bortzirriak-Malerreka:** Gloria Agerri, **Sakana:** Migel Zubiria, **Larraun:** Jose M^a Aierdi, **Ultzama:** Purificación Etxeberria, **Erroibar:** Leontzio Campos, **Aezkoa:** Angel Loperena, **Agoitzaldea:** Javier Ortizank, **Saraitzu:** Jesus M^a de Andrés, **Erronkari:** Angel de Miguel, **Zangotza:** Agustín Navallas, **Orba (Valdorba):** Gonzalo Rekalde. Udal ordezkariak gain, batzarrak Juan Jose



Zuzendaritza Batzorde berria honako hauek osatzen dute: lehendakaria Jose M^a Aierdi (Lekunberriko alkatea eta EAko buruzagia); Lehendakari ordeza Agustin Navallas (Zangotzako alkatea eta IUko buruzagia); Idazkaria Juan Jose Larraza (ELAko ordezkaria) eta Diruzaina Mikel Petirena (EHNE Nafarroako lehendakaria).

Larraza eta Jose Angel Izkue izendatu zituen bertzelako erakunde eta elkar-teetako ordezkari gisa. Azken lau urteotan, agentzia honek 'Leader' programako 3.000 milioi pezeta baino gehiago (120 milioi libera) kudeatu ditu. Orain 'Leader II' izeneko

Azken lau urteotan, agentzia honek 'Leader' programako 3.183 milioi pezeta (120 milioi libera) kudeatu ditu.

programa hasiko dira kudeatzen.

INBERTSIOAK ESKUALDEKA

Europatik etorritako 3.183 milioi pezetak, honelaxe banatu dituzte eskualdeka: **Agoitzaldea** 159 milioi; **Bortzirriak-Malerreka** eta **Bertizen** 576,5 milioi; **Leitza-Larraun** eta **Ultzaman** 498 milioi; **Erronkari-Saraitzun** 240 milioi; **Baztan-Urdazubi** eta **Zugarramurdi** 312,7 milioi; **Sakanan** 509 milioi eta 328,5 milioi gehiago funtzionamendu gastuetan eta bertzelako inbertsioetan.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L.; Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

AGENDA EGUNEZ EGUN

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

«Baztandik meategietara» izeneko Margo Erakusketa

► Urriaren 11tik azaroaren 10era

Arizkunenean Jose M^a Apezetxea, Kepa Arizmendi, Angel Aja, Marcelino Bañales, Ana Marin, Tomas Sobrino, Xabier Soubelet, Jose M^a Rezola eta Ismael Fidalgoren lanak egon diren ikusgai.

EUSKARAREN EGUNA

ZUBIETA

► Urriaren 14an

Dantzak, Pilota Partidua, aizkora apostua eta gau-pasa.

KONTZERTUAK

LESAKA

► Urriaren 7an

Zuberoako 'Altzükütarrak' taldea Pilotalekuan gaueko 11etatik aitzinera.

SUNBILLA

► Urriaren 14an

'Udazkeneko Bira' izeneko ekitaldien barnean «Ardanbera Fanfarrea» arratsaldeko 8,30etan karrikan barrena.

ETXALAR

► Urriaren 14an

'Reincidentes' rock taldea eta 'Tapia eta Leturia Band' gaueko 11etatik aitzinera.

ETXEBIZITZAK

LESAKA. Denbora luze-rako pisu bat alokatuko nuke. Interesatuak, harremanetarako telefonoa utzi Tele-Bote ostatuan.

BERA. Pisu mobleztatua eta garagea alokatzen da (45.000 pezeta hilabetean). ☎ 306502 (Lurdes).

Borda edo **baserria** erosi-ko nuke Baztan, Bidasoa, Malerreka edo Ultzaman. ☎ 234830.

ARANTZA. Pisua salgai herri sarreran. ☎ 637050.

DONEZTEBE. Pisua merke-merke alokatuko nuke. ☎ 450326.

LESAKA. Bajera bat alokatzen da Albistur karrikan, lur azpian. ☎ 637948.

BERA. Pisu mobleztatua, 40 m²ko garagearekin alokatzen da. ☎ 451518.

BERA. Pisua erosiko nuke. ☎ 306502.

BERA. Pisua salgai gara-jearekin eta trasteroa ganbaran. Legian. ☎ 630686 (2etatik aitzinera deitzeko).

ALFARO (Errioxa). 2 solairuko etxea salgai, 2 terraza, erretegi estalia, sukaldea, bainua. Mobleztatua. 5.200.000 Pta. ☎ 943-424216 (Alfredo).

DENETARIK

BERA. Garagea salgai. ☎ 630686 (arratsaldeko 2etatik aitzinera).

ERROTXAPEAN (Iruña) pisu mobleztatua kalefakzioarekin alokatzen da. Hobe irakasleak edo ikasleak badira. ☎ 630217.

Trikitixa salgai, B modelo-koa. ☎ 453094.

Leioan neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 630897 Estibalitz, 630579 Miren edo 637991 Maite.

Lesaka edo inguruan gela bat alokatuko nuke, sukalderako eskubidearekin. Gastuak erdibana. Gizon formala. ☎ 637796 Rogelio.

Liburuak salgai. 'Areas Logse', 'Consultorio didactico', OHO, BBB, UBI eta LHrako. Ariketak eta osagarriak. ☎ 610867.

Esne tankeak behar ditugu. ☎ 627531 edo 908-778894 (mugikorra).

Bateria osoa, Cayman markakoa salgai. 95.000 pta. negoziagarriak. ☎ 627622 Agustín.

Logela bat salgai, 90 zm. ko bi ohe bere 'puentearekin', mesanotxea, tokadorea bere ispiluarekin, koltxoak eta ohegainekoak dohai-nik emanen nituzke. Gutti ibilia, prezio ona. ☎ 637883.

Gitarra elektrikoa eta an-plifikadorea salgai (pedala, afinadorea eta kableak oparitzen dira). **Akordeioa** ere salgai. ☎ 510089 (Mikel).

Kutxa erregistratzailea Casio Elektronik Tk-4000 markakoa salgai. ☎ 580980 (8etatik 13etara eta 16etatik 18etara).

Bi bizikleta Orbea markakoak, paseatzekoak, salgai. Merke. ☎ 510594.

Balay markako labadora salgai. 6 urte eta hagitz egoera onean. ☎ 631182.

Gaztainak erosiko nituzke. ☎ 322164 Alfredo.

Iruñean (Orvinan) pisua osatzeko jende euskalduna behar da. ☎ 130200 Mikel.

LANA

Kitarra eta **baxu** klaseak ematen dira. ☎ 630217.

Irakasle titulodunak OHO-ko gai guztien eta BBB eta REMeko gaztelera klaseak emanen lituzke (gaztelaraz). ☎ 627637 Mertxe. 1-3etara eta 8-10etara.

Erizain tituluak, adineko jendea zaintzen lan egiten luke. Esperientziarekin. ☎ 630578.

Klase partikularrak emanen nituzke, OHO, IEE, euskara, frantsesa. Espe-

rientzia luzea dut. ☎ 510514 Itziar.

Ingeles titulua eta klaseak ematen esperientzia daukan neska bat Donezteben klaseak emateko prest. ☎ 450681 (Eduarne).

IBILGAILUAK

Audi SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

AZIENDAK

Collie edo eskoziar artzai **zakurkumeak** salgai, laguntzeko edo arditarako. ☎ 451518-234830.

Katu eta **katakumeak** oparituko nituzke. ☎ 510293.

Sei zakurkume oparitzen dira. Ama ehizi-zakurra, aita ezezaguna. ☎ 610867.

Urdazubin 37 ardi faltatu dira etxe batetik. Ardi guztiak bi belarrietan laia dute eta hoietakoa hamazazpik, bi belarrietan xakia ere badute. Norbaitek baldin badaki zerbait, dei dezala ☎ 599175era. Sarituko zaio.

Behor horia, urte t'erdiko zaldikoekin, joan den apirilan agertu zen Goizueta

aldean. Seinalea belarrian du. ☎ 514107.

Mando gazte bat salgai Arantzan. ☎ 634066.

Bi ehizi zakur (sabueso) salgai. ☎ 387016.

Artzai zakurkumeak salgai. ☎ 504492.

AGURRAK

Arraiozko Daniel Saldias-eri: zorionak bere 5. urtebetetzean. Bere familia.

Berako Laura I.-ri zorionak zure 13. urtebetetzean. Patrizia.

Saldiasko Isabel Juane-nari: zorionak zure urtebetetzean eta bete itzazula beste hogeita hamargutxienez. Arraiozko iloben partez.

Berako Nagore Arretxeari: zorionak zure urtebetetzean. Ongi pasa zure lagun eta familiarekin. Zorionak. Narbarteke lagunak.

Berako Mirari Morantes eta **Agurtzane Santxez-i,** erretzea kaltegarria dela oroitarazten dizuet. Lesakako J.M.ren partez.

Berako Iñaki Ariztizabali: Zorionak zure 14. urtebetetzean zure ama, arreba Garbiñe eta izeba-osaben partez.

Berako Ainhoa G.ri. agurrik beroena zure lagun haundienaren partez.



Edozein pisu mugitzen dugu Pabilioiak muntatzen ditugu

BULEGOA:

Sebastian de Erratzu, 7 behea • **IRUN**
Tfnoa: (943) 61 87 24
Tfno Mugikorra: 908 - 77 54 57

GRUAK:

Estación, z/g • **IRUN**
Tfno Mugikorra: 908 - 67 85 84



AKORDEIOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

Angel Manuel Belio

AKORDEIOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMINENEA Etxea
San Andres karrika, 40 - **NARBARTE**
☎ 943 - 61 50 55



**MUNDUAN GEHIEN
SALTZEN DEN
TRAKTOREA**



LAU - BIDE



MASSEY-FERGUSON

**KONTSESIONARIO
OFIZIALA**

*Mota guzietako
traktore eta
makinak ditugu*

**ZATOZ IKUSTERA
KONPROMISURIK
GABE**

**BESTE EDOZEIN MARKAKO TRAKTORE
ETA MAKINAK KONPONTZEN DITUGU.**

ZUEN ZERBITZURA GAUDE

Ikatzatea - Ordoki Auzoa • Tfnoa eta Faxe: 948 - 45 34 25 • ARIZKUN

**Zure semeak behar duen
instrumentu musikal hoberena aurki dezakezu
finantzaketa hoberenarekin.**

*Moeta guzietako instrumentuen erakusketa haundiena:
Teklatuak, saxofoiak, tronpetak, bateriak eta abar.*

**Piano, akordeoi eta trikitixen
importatzaile zuzenak gara.
Lantegi prezioak.**

**Errekargurik gabeko
finantziaketa
24 hilabete arte.**

**Erakusketako
1.400 m²**

**Musical
Tomas**

MEGADENDA

20 urte zure zerbitzuean



C/ Asunción, 4 y 6 • Tfno. (948) 26 85 53 -75 • 17 07 11 • Fax. (948) 17 03 81 • IRUÑA

DIBERTSIOA HASI DA
SASOI BERRIAREKIN

BORDATXON

DONEZTEBE - NAFARROA

URRIAK 7 LARUNBATA

DISKOTEKA SARRERA DOHAINIK

URRIAK 14 TRIKITIXAK LARUNBATA



MAIXA eta ITZIARREKIN

URRIAK 21
LARUNBATA

DISKOTEKA

URRIAK 28 LARUNBATA

EGAN BERRIA



BORDATXO

LARUNBAT GAUEKO MARTXA